

# **IZENAK SORTZEKO ATZIZKIAK ETA LITERATUR HIZKUNTZAREN HISTORIA: UBILLOSEN DOTRINA ETA LUBIETA ETA POMIER HIZTEGIAK**

Hodei Iruretagoiena Albizu.

Tutorea: Joseba Andoni Lakarra Andrinua.

Euskal Ikasketetako Gradua, 2021-2022.

## **LABURPENA:**

Izenak sortzeko eratorbidean —bereziki, egile eta langile izenetan eta izen-abstraktugileetan— XVIII. mendeko literatur gipuzkeraren garapenak izan zuen eragina aztertu nahi izan dugu hemen, hizkuntza jasoagoa lantzeko bidean eratorpenak duen garrantzia, Larramendiren HH-ak (1745) ezarritako mugarrira gogoan. Haren aurreko eta ondorengo lanak aztertu nahi izan ditugu horretarako: aspalditik ezaguna den Ubillosen dotrina (1785), eta berrikitan ezagutu den Pomier hiztegia eta Lubietarena (1728). Gómez-Lópezek eta Zulaikak egindako edizioan (2020), 1745 aurretik kokatu zuten Pomierrena, baina bai hipotesi hori eta baita aurkakoa ere —1745 eta 1808 artekoa ote den— aztertu dugu amaieran, Lakarrak (2022) egindako oharren ildotik.

Horretarako, literatur hizkuntzen historiari buruzko ikuspegia zehaztu dugu, Lakarra (1997) lanetik abiatuaz, eta Urgellen (2018) eta Mitxelenaren (*FLV* 1989) lanak erabiliaz garaia eta corpusa kokatzeko. Aztertutako laginetako atzizkiei buruzko datu orokorrak eman ditugu lehen, eta *-tasun*, *-keria*, *-(t)ari*, *-tzaile / -le* eta *-gile / -gin* atzizkietan jarri dugu arreta. Horien emankortasuna, laginetako lehen lekukotasunak, literatur hizkuntzaren eragina eta atzizkien modernotasuna aztertu ditugu bereziki. Hori guztia aurrez alorraz egindako ikerketekin osatzen saiatu gara, batez ere, Sarasolaren (1997), Urgellen (2003) eta Bueno Berridiren (2006) ikerketak aintzat hartuaz. Amaitzeko, atzizkiz atzizki, egitura nagusiak ikertu ditugu: zein onarriren gainean eraiki diren hitzak, mailegatuen tokia ere berariaz aztertuz, eta zenbait aldaeraren alternantziak. Eranskin modura, erabilitako funtsezko datuak zerrendatu ditugu, atzizkika eta aldaerak banatuta, lehen lekukotasunak, Hegoaldeko lehen agerraldiak eta aurrez erabiliak direnak bereiziz. Hegoaldeko lehen agerraldien kasuan, aurrekari dituzten Iparraldeko autoreak aipatzean, Ubillosek, Lubietak eta Pomier hiztegiaren egileak eskura izan ezin zitzaizkiren lanak markatu ditugu. Gogoeta honek amaieran planteatutako hipotesia jorratzea erraztu digu; alegia, Pomier hiztegiaren eta Larramendiren HH-ren arteko harremana ikertu eta kontrako hurbilketa (HH > Pomier) azalpen emankorragotzat aurkeztea.

## **AURKIBIDEA**

1- Kokapena.....	3
1.1. Helburuak eta ikuspegi orokorra.....	3
1.2. Garaia.....	5
1.3. Corpusa.....	6
2- Laginen datu orokorrak.....	10
2.1. Orokortasunak.....	10
2.2. Aztertzeko hautatutako atzizkiez.....	11
2.3. Larramendiren sailkapen eta oharrak.....	12
2.4. Ubillosen dotrinakoak.....	13
2.5. Lubietarenak.....	13
2.6. Pomier hiztegikoak.....	14
3- Datuen azterketa eta interpretazioa.....	15
3.1. Ubillosen dotrinako lehen lekukotasunak.....	15
3.2. Lubietaren lehen lekukotasunak.....	16
3.3. Pomier hiztegiko lehen lekukotasunak.....	16
3.4. Sarasolaren datuak lehen lekukotasunen inguruan.....	21
3.5. Literatur hizkuntza eta zenbait atzizkiren modernotasuna.....	22
4- Oinarriak eta atzizkiak.....	23
4.1. <i>-tasun</i> .....	23
4.2. <i>-keria</i> .....	23
4.3. <i>-tzaile</i> eta <i>-le</i> .....	24
4.4. <i>-gile</i> , <i>-gin</i> eta <i>-kin</i> .....	24
4.5. Zenbait aldaeraren alternantziez.....	25
5- Azken orduko hipotesia: Pomier Larramendiren ondorengo?.....	26
6- Ondorioak.....	33
7- Bibliografia.....	37

## **1- KOKAPENA:**

- **1.1. Helburuak eta ikuspegi orokorra**

Euskara Modernoaren garapenean izan duen garrantzia aintzat hartuta atzizki bidezko eratorbidearen alderdi batzuk aztertzea izan da gure helburua lan honetan. Nagusiki, izenak sortzeko bost atzizki izan ditugu aztergai: *-tasun* eta *-keria*, izen abstraktugileak; eta *-ari*, *-tzaile* / *-le*, eta *-gile* / *-gin*, lanbideak adieraztekoak. Horretarako, hautatutako hiru laginen datu orokorrak eman ditugu — emankortasuna eta lehen lekukotasunak aztertuz, batez ere—, eta atzizkiz atziki, egitura nagusiak ikertu ditugu: oinarriak eta aldaeren alternantziak.

Ikergai zabala dela jakinik, esan bezala, lekukotasun gutxi batzuk aztertzer mugatu gara, gai horri buruz zeresan aparta izan zezaketelakoan: Ubillosen dotrinaren (1785) zati bat<sup>1</sup>, Lubietaren hiztegia (1728)<sup>2</sup> eta berriki Gómez-López eta Zulaikak (2020) argitara emandako Pomier hiztegia<sup>3</sup>. Hiru horiek hautatu ditugu, batez ere, hitzberrigintzan eta Euskara Modernoaren garapenean mugarrira ezarri zuen Larramendiren aurretiko eta ondorengoak direlako<sup>4</sup>. Gainera, Sarasolak (1997) hitzberrigintzaz emandako datuak baliatu ditugu; ordurako, ezaguna zen Ubillosen dotrina, baina berriagoak dira beste biak. Beraz, datuok hitzberrigintzaren historiaz diotena testatzeko ere balio behar luke gure ikerketak, neurriren batean.

Ubillosena da aspalditik ezagunen. Hizkera eta estilo zaindua erabiltzeaz gain, Larramendiren jarraitzaileen artekoa zelako hautatu dugu, Mitxelena nabarmendu gisan. Gipuzkera zuen berezko hizkera hark ere, baina “argi dago harentzat, gutxiago landua izanagatik, lapurterazko ereduak izan behar zituela euskarri, hasteko eta behin, Axularrena”. Bereziki, lexikoan eta grafian ikusi zion eragin hori. Aditz morfologia eta deklinabidea, aldiz, “osoki gipuzkerazkoa” zela zioen (1989: 2-4).

Pomier hiztegian, hitz elkartu eta eratorrien portzentajea “garai hartarako nahiko handia” dela diote Gomez-López eta Zulaikak (2020: 24), eta beraz, egokia izan daiteke gure zereginerako. Haien hipotesiaren arabera, gipuzkerazko lehen hiztegiatako bat litzateke, eta gainera, euskalki hartan idatzitako “lehen testu luzeenetako” bat (2020: 2-3). Alabaina, beste ikuspegi bat aurkezterik ere badela ikusiko da: ez izatea —ez osorik

---

1 *Christau doctriñ berri-ecarlea* (1785) dotrinaren lehenengo parte —120. orrialdera artekoa—.

2 *Diccionario en castellano y basquenze* (1728). Bibliografia eta transkripzioa: A. Bueno, G. Bilbao.

3 Zehazki, Gomez-Lopez eta Zulaikak (2020) edizioan erabili duten kopia. *VP (Vocabulario Pomier)* deitura darabilte haiek; Pomier hiztegia erabiltzea hobetsi dugu lan honetan.

4 Pomier hiztegiaren kasuan, ikertzeke deago oraindik zehazki noiz egina den.

behintzat—, orain arte pentsatu bezala, Larramendiren aurrekoa. Harekin batera, Lubietarena ere funtsezkoa da gipuzkerazko hiztegiaren inguruko ikuspegia osatzeko.

Hizkuntzalaritza historikoari buruzko ikuspegi orokorra kokatzeko, aipatu behar genuke ikergai horrek “hizkuntza baten (euskararen, kasu) aldaketen azterketa” hartzen duela bere gain. Hizkuntzaren barneko historia eta kanpoko bereizi behar genituzke, hasteko, lehenengoaz ari garela zehazteko; hau da, “hizkuntzazko datu eta dokumentuek ematen dituzten berriak” ditugula aztergai nagusi (Lakarra, 1997: 450-451).

Lakarrak (1997: 455) egindako oharra gogoan —“corpusaren aberastasuna ere ez da pozaren pozez egotekoa, ez tamainaz (1745 baino lehen ez dira 500 folio izango Hegoaldean eta 5.000 bat Iparraldean)”—, jabetzen gara Pomier eta Lubietaren gisako hiztegien edizioak izan dezakeen garrantziaz, esaterako, eratorpen atzizkiak ikertzeko. Hizkuntzaren bilakabide osoaren azterketa diakronikoa urrutiko helburu izan arren, lekukotasun horiek ikertzer mugatu gara gehienbat, testuon azterketa sinkronikoak ere zeregin horretan bere alea jar dezakeelakoan. Ubillosen dotrina ere erreferentzia gisa erabili nahi izan dugu, guztien artean denbora tarte laburra egon arren, Larramendik ezarritako mugariak bereizten —eta lotzen— dituelako hiruak, izan Pomier hiztegia haren aurretiko, izan ondorengo.

Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-aren<sup>5</sup> eta eratorbidean inguruan ikertu du Urgellek<sup>6</sup> bere tesian eta ondoko lanetan, eta hark ere ohartarazten gaitu aztergaiaren egoeraz (2003: 209): “Euskal atzizkiei buruzko ikerketa diakronikoa ia osoki falta dugula” diosku —Bueno Berridik (2004-2006) nominalizazio atzizkiei buruz egindakoa aipatzen du aurrerapenen artean, eta besteak beste, hura erabili dugu gure lanerako oinarritzko lanen artean—.

Bestalde, dakigunez, “euskara aldatuz joan dela, eta atzizkibidea indartuz (cf. de Rijk 1995)” (Urgell, 2003: 209). Eratorpena “emankortasunaren erresuma” dela ere gogorarazten digu Urgellek, “eta beraz, daitezkeen gauzak lehenengoz idatziz erabiltzea —edo lehenengoz hiztegian jasotzea— xehetasun jakingarria izanik ere, sarritan (eta ezinbestean) azpian ahozko hizkuntzaren lehentasuna ezkutatuta dagoela” (2003: 209). Corpora zabaltzea da, beraz, haren hitzetan, “kasualitate eta erregularitasunaren artean

5 Aurrerantzean, HH (Hiztegi Hirukoitza). Lanean erabili gainerako laburdurak: i (Iparraldeko hitz edo adiera); z (Zubererazko hitz edo adiera); eta LEM (Lehen Euskara Modernoa); SEG (Sareko Euskal Gramatika).

6 Urgellen tesiaren (2000) atal baten argitalpen berriztatu eta zuzendua. Bibliografian: Urgell, 2003.

bereizteko modu bakarra”. Horrek ere balio diezaguke, nolabait, Pomier hiztegiaren eta hura berariaz aztertzearen garrantziaz jabetzeko.

- **1.2. Garaia**

Atzizki sistemaren garapenak “neurri handi batean literatur hizkuntzaren garapenarekin” duen harremana ere nabarmendu zuten Lakarra eta bestek, Urgellek oroitarazten digunez (Sarasola 1986 eta 1997: 634-637; Lakarra 1992: 292-294 *apud* Urgell 2003: 233). Gipuzkeraz ari garela, beraz, giltzarri genuke Pomier hiztegiaren, Lubietaren hiztegiaren (1728) eta Ubillosen dotrinaren (1785) arteko garaia.

Sarasolak (1997: 621) nabarmendu zuen, hitzen lehen agerraldiak aztertuta, “XVIII. mendearen erdialdetik aurreko goraldia Hegoaldeko ekoizpenaren pizteari” dagokiola batez ere: “1750-1800 epeko 1045 agerraldietatik iparraldekoak (i + z) 156 —hots, %14,93—, eta bizkaiera hutsekoak 39 —hots, %3,73— direnez gero, nabaria da mende erdi horretako gorakada gipuzkeraren inguruan gertatzen dela”.

Garaitsu hartan hasten da Lehen Euskara Modernoa, Larramendik “euskara duintzeko egitasmo bat abian jarri zuen unean” (Urgell, 2018: 549). Dakigunez, lehen aldiz, “literatur tradizio bera (lapurtera klasikoa), eta hizkuntz lanabes berak partekatuak izango dira gaingiroki Euskal Herriko lau bazterretan”. Ez zen, ordea, estandar bakarra landu, lau literatur euskalki baizik; haien artean, gipuzkera, euskalkiz gaineko Hegoaldeko koine gisa landu ere (Urgell, 2018: 549). Funtsean, euskararen lehen gramatizazioa ekarri zuen Larramendiren mugimenduak.

Haren eragina nabaria izan zen hizkuntza kontuetan: 1876an kokatzen du Urgellek LEMaren amaiera, eta, Gipuzkoan batez ere, euskara haren “ezaugarriak areagotu egin ziren: hitz larramenditarrak ez ziren behin ere hainbeste erabili, nola *Euskal-Erria* aldizkariak iraun zuen epealdian (1880-1918)”.

Nabaria da, beraz, XVIII. mendearen erdialdeko garaiak gerora izan duen eragina. Mende hasieran, gipuzkoarren gehiengoa elebakarra zen oraindik. Euskara, ordea, nekez agertzen da idatzizko lanetan. Kezkaz ikusten zen goi mailako jende letratuak euskara alde batera uztea, eta 1745etik aurrera, erantzun bat sortu zen, Larramendi “ideologo eta bultzatzaile nagusi duena”. Mende oso batez, dena den,

euskara duintzea bera baino, “eragileagoa izan zen herria zuzen dotrinatua zela ziurtatzea” (Urgell, 2018: 563).

1745 arteko argitalpen urriak, beraz, dotrinen egokitzapenak izan ziren, “hain justu apaizek euren eliztar eskolagabeak ahoz hezteko modukoak” (Urgell, 2018: 566). Besteak beste, hitz fakultatiboak osatu beharra zegoen hizkuntza jasotzeko, eta alderdi horretan nabaria da eratorpenaren indarra. HH-ko eratorrietan, 2.435 hitz bildu zituen Urgellek bere ikerketan (laginaren %50), eta horietatik 324 (%13,3) bakarrik lekukotu ahal izan zituen lehenago. “Honek esan nahi lezake, 10 eratorritan 8,5 hitz berriak izan litezkeela; pixkat gutxixeago ziurrenik, 1745 baino lehen daukagun corpusaren urria aintzat harturik” (Urgell, 2003: 212).

Gogoratzekoa da, atal honekin amaitzeko, Pomier hiztegiaren sarrera guztien %14,5 inguru hitzetan atzizkiak aurkitu dituztela Gómez-Lópezek eta Zulaikak. Haien esanetan, “aski portzentaia handia” da garaiko hiztegi baterako (2020: 24). Geuk aztertutako bost atzizkietan, berriz, sarreren %27,5 lehen lekukotasunak direla ikusi ahal izan dugu. Horiei Hegoaldeko lehen lekukotasunak gehituz gero, berriz, %43,2ra igoko litzaiguke ehunekoak. Gainerakoak, berriz, Hegoaldean aurrez lekukotuak lirateke. Kopuruak asko aldatzen dira, ordea, Larramendi tartean sartuz gero: 142 hitz eratorrietatik, %15,4 baino ez lirateke: %7,7 lehen lekukotasunak, eta %7,7 Hegoaldeko lehen lekukotasunak.

- **1.3 Corpusa**

- **1.3.1. Ubillosen dotrina**

Ubillosen *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena* (1785, Tolosa) dotrinaren lehenengo partea —120. orrira artekoa— da aztertutako lehen lagina. Hordago argitaletxeak 1978an argitaratutako liburua erabili dugu azterketarako, 1785an Tolosan atera zen originalaren faksimilea —hasieran, asko pentsatu gabe, 1909an Tolosan *Kristabaren ikasbidea* izenpean argitaratutako edizioari ekin bagenion ere<sup>7</sup>—.

---

<sup>7</sup> Kontu bitxi batzuk ikusi ahal izan ditugu “huts” hari esker: Ubillosek 54 *libertasuna* zuen lekuan 55 *azkatasuna* jarri ziotela —bide batez, OEHren arabera, Ubillosek ez beste inork ez du *libertasun* —, eta 31 *Jaupari edo Jainkoari* bezalakoak sartu. Kutsu aranista nabarmena du edizioak, bistan denez.

Denera, 224 orrialde ditu Ubillosen dotrinak —zutabe bana orrialdeko—, eta bi parte edo zati nagusitan dago banatua. Marrazki bat dakar parte bakoitzaren hasieran, goiko aldean. Hogeita hamar atal edo *Irakurtza* ditu lehenengo parteak, eta hogeita bederatzi bigarrenak. Dotrinako pasarte bat ematen du Ubillosek atal bakoitzean: azalpen bidez aurrena, eta galde-erantzunetan ondoren.

224. orrialde horien aurretik, azaleko testua dago orrialde batean: izenburua dakar aurrena (*Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena*), eta berak egindakoa Jaun Claudio Fleuriren dotrinaren itzulpena dela zehazten du segidan: “*Jaun Claudio Fleuri Abadeak arguitara atera zuanetic. Fray Juan Antonio Ubilloscoac Eusquerara itzulia. Bi parte, edo zatitan bereçia, ta erdiratua. Lendavicicò zatiac dacar, Jaincoarèn legue zarrean, ta berrian guertaturicaco gauzen berri laburra: Bigarrenac, Christavak jaquin, ta sinistu behardituan, eguien eracustea, ta icas-vidèa. Behar bezala*”. Amaitzeko, non inprimatu duten esaten du: “*Tolosan: Libruguille Francisco de la Lama-rèn Echean, 1785. Urtean*”. Amaieran, berriz, sei orrialde gehiago ditu: *Arquiteguia* dakar horietako bostetan, eta akatsen zerrenda moduko bat azkenengoan: “*Liburu onec dacazquian uts gucien zucen-videa*”.

Hizkuntza kontuekiko ardua bazuela erakusten du hitzaurreko oharrek. Euskarazko sermoietan entzuten diren barbarismo eta solezmismoak ditu aipagai, besteak beste:

Eusqueraz darausquizunean, eusquerazco hitzac ez badarabiltza-tzu, zure erausia hitzunea edo barbarismoa dala esango dizue; ta hitz bacoitza dagoan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-jarioari araututsa edo Sofecismoa deituko dioe. Bost onelaco enzuten degu eusquenizco sermoietan! Alabafia, zori gaiztoan dacuscun bezala, euscaldun guichic necatu nai du eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen.

Mitxelenak azaltzen digunez, Juan Antonio Ubillos (Amasa, Billabona, 1707-Arantzazu, 1789) izan zen “hizkuntza eta estilo kontuetan Larramendiren jarraitailerik fidelena” (1989: 1). 1722an frantziskotar egin ondoren, Alcaláko unibertsitatean egin zituen teologia eta filosofiako goi mailako ikasketak. Horren eta irakaskuntzako jardunaren ondorioz, garai hartako idazleengandik “apur bat bereizita” agertzen da ahoz nahiz idatziz, Mitxelenaren hitzetan (1989: 1). Latinez, filosofia eskotistari buruzko hiru lan ere argitaratu zituen.



Gainera, itzultzeko hautatutako lana —Fleuryren *Cáthecisme historique*— ez omen zen garai hartako gainerako katezistek erabilitako ohiko lan herrikoia: “Fede kristauaren fundamentazio historikorako saiakera da” (1989: 2). Besteak beste, *Real Seminario de Bergara*-n erabili zuten lan hori, eta Fleury bera autore progresistatzat du Mitxelenak.

Hizkuntza kontuetan, Ubillosek hautatze-irizpide fina erakusten duela dio Mitxelenak, “aldaera dialektalen hautaketa zaindua” (1989: 3). Gipuzkeraz aritu arren, gainerako autoreen (Axular, Mendiburu) adierazpideak erabiltzera bultzatu zuen horrek; batez ere, lapurtera oinarri hartuta.

### 1.3.2. Lubietaren hiztegia

Lubietaren hiztegia ere aztertu dugu: *Diccionario en castellano y basquenze que sirve para la enseñanza de la bascongada* (1728). Izenburuak argitzen digunez, euskara irakasteko idatzitako eskuizkribu bat da Jose Domingo de Lubieta donostiarrak idatzia. Hain zuzen, don Juan Francisco de Lullier izeneko merkatari batentzat egina dela kontatzen digu azken orrialdean, eta 1728ko urriaren 6ko datarekin amaitu zuela.

Bilboko *Sociedad Bilbaína*-ren erakusketa batean kopia bat aurkitu, eta Gidor Bilbaok egin zuen eskuizkribuaren edizioa. Haren esanetan (Bilbao, 2012: 623), “nabari da garbian eginiko kopia dela, bi zutabetan (gaztelaniaz eta euskaraz) idatzitako 459 orrialde direla, idazkera garbi eta irakurterazez idatziak, gipuzkeraz, itzulpenik luzeenetan gaztelaniarekiko morrontza nabarmenarekin”. 23cm-ko eskuizkribua da, 11 koadernotan banatua (Bilbao, 2012: 623).

Guztira 1.000 sarrera inguru biltzen ditu Lubietaren hiztegiak (Zulaika, 2012: 60). Hiztegi gisa izendatu arren, ikasbide osoaren zati bat baino ez da hori. Baditu atal gehiago izen horren pean: elkarrizketa eredu zenbait, gramatikako atalak (tartean, Antonio Nebrijaren eredu jarraituz egindako adizkitezia), eta baita dotrina baten zati bat ere, galde-erantzunetan emana. Funtsean, gramatika, hitz zerrendak eta esapideak, eta praktikarako hizkuntza-ereduak (Bilbao, 2012: 626-628). Atzizki aldetik ez da oso aberatsa, baina elkarrizketetan eta dotrinan badira interesatzen zaizkigun zenbait lekukotasun.

Voltoiren eta Micoletaren eskuliburuekin batera aipatzen du Lubietarena Zulaikak (2012: 47), garai hartan, European antzeko eskuliburu ugari argitaratzen ari

zirela azalduz. Micoletarena bezala, ordea, Lubietarena ere, “itxuraz enkarguz egina”, ez zen inprimatu.

### 1.3.3, Pomier hiztegia:

VP (*Vocabulario Pomier*) edo Pomier hiztegia da gure lanerako hartu dugun aztergai nagusia: Ricardo Gómez-Lopezek eta Josu M. Zulaikak eginiko *El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español* ikerketa eta edizioa erabili dugu. Bai haiek lanaren lehen zatian (2020: 1-84) emandako datu eta hausnarketak, baita hiztegiaren ediziotik bertatik (2020: 85-208) geuk zuzenean ikertu ahal izan ditugunak ere.

Egileek sarreran azaltzen dutenez, gipuzkerazko lehen hiztegiatako bat da lekukotasun anonimo hori —edo zehatzago, haren kopia bat (2020: 12)—, Lubietaren hiztegiarekin batera (2020: 3). Eskuizkribu moduan iritsi da ikerlariengana, eta Henry Pomier delako baten jabetzakoa izan zela agertzen da *exlibris*-ean (2020:5). Donostiako *Librería Internacional*-eko Manuel Conde Lópezek eskuratu bide zuen, eta Bizkaiko Foru Liburutegiari saldu gero, 1921ean.

Bizkaiko Foru Liburutegiak 2013an publikatu zuen interneten Liburutegi Digitala, eta Josu Zulaika 2014ko hasieran abiatu zen Pomier hiztegia editatzen —urte amaieran batu zitzaion Ricardo Gómez—. 94 orriko eskuizkribua zen, zortzi plegutara egina (100 x 152 mm), eta ongi kontserbatua. Denera, 187 orrialde ditu idatzita, zutabe bat euskaraz eta beste bat gaztelera (2020: 10). Atariko bi orrialdeak aztertuta ondorioztatu dutenez, 1808an Iruñeko *Hospital General*-eko paperarekin egindako kopia bat dirudi (2020: 12).

Hiztegia bera, ordea, 1729-1745 artekoa dela proposatu dute Gómez-Lópezek eta Zulaikak. Haien hipotesi nagusia da Valeriano Requejoren *Thesaurus Hispanolatinus* (1729) hartu zuela eredu egileak. Datazioa finkatzeko, Larramendiren Hiztegi Hirukoitza publikatu (1745) aurretikoa behar duela proposatu zuten, hainbat arrazoigatik. Hasteko, Gipuzkoan behintzat, euskararen ikerketan interesatutako guztiek izango zuketelako HH-aren argitalpenaren berri, eta, edizioegileen esanetan, zaila litzatekeelako ulertzen haren ondoren gisa hartako obra txikiago bat publikatzea, nahiz eta, Larramendirena ez bezala, euskara-gaztelera hiztegi bat izan (2020: 21). Badakigu, ordea, Larremendiren lana osatzeko saioak izan zirela gero ere, eta ezin da baztertu Pomierrena ere halakoren bat izatea.

Arrazoi linguistikoak ere azaldu dituzte Gómez-Lópezek eta Zulaikak *terminus ante quem* hori zehazteko (2020: 22-25). Batetik, salbuespenak salbuespen, Pomier hiztegiaren egileak ez darabilelako “neologismo larramenditar tipikorik”: ez kontrakzio beharturik hitz eratorri eta elkartuetan, ez Larramendik berariaz sortutako atzizkirik (*-aira, -dall-ta, -de, -kida(tu), -kin, -kinde, -kintza, -txar*) eta atzizki-katerik (*-gindegi* edo *-kindegi, -men(du) + -ari*).

Bigarrenik, perifrasi ugari darabiltzalako, HH-a eskura izan balu erabiliko ez omen lituzkeenak. Hirugarrenik, tradizioz ohikoak ez diren maileguak ematen dituelako euskarazko ordain gisa. Eta azkenik, hitz eratorri eta elkartu ugari erabili arren —sarrera guztien %14,5—, gutxitan egiten dutelako bat Larramendik emandakoekin. Bat egiten dutenetan, aldiz, aldaera ezberdinak dira, gaztelerazko ordaina ezberdina da, edo aurretiko tradizioa duen hitz eratorri bat da. Argudio horiek ere ez dira definitiboak, ordea, eta berriz ere, pentsa liteke Larramendiren HH-a osatzera datozela hitz horietako hainbat.

## **2- LAGINEN DATU OROKORRAK**

### **• 2.1. Datu orokorrak**

Ubillosen dotrinan aztertutako zatian, errepikatutako hitzak baztertu ditugu zenbaketan. Agerraldi askotan daude hitzak errepikatuta, eta bakoitzaren esanahia antzekoa da beti; bereiztekotan ere, testuinguruaren arabera baino ezingo genituzke bereizi. Dotrina bat dela aintzat hartuta, gainera, erlijioari lotutako hitz jakin batzuk askotan ageri dira.

Pomier hiztegiaren sarreran editoreek zehazten dutenez (2020: 24), 54 atzizki ezberdin eta aurizki bat aurkitu dituzte hiztegian, 500 hitz ezberdinetan —sarrera guztien %14,5—. Egileen hitzetan, “aski portzentaia handia” da garai hartako hiztegi baterako. Ez da, dena den, Larramendiren HH-aren neurrira iristen: hark aztertutako laginetik —4.867 lema ezberdin— erdiak baitira eratorriak (Urgell, 2003: 212).

Azaleko zenbaketa bat eginda, hogeitik gora atzizki ezberdin identifikatu ditugu Ubillosen laginean. Horietatik 11 emankorrenak zerrendatu ditugu, denera, 72 hitz ezberdin, hiru laginen ikuspegi orokor bat izateko. Ondoren, atzizki horiek Lubietaren eta Pomier hiztegiatan duten agerpena ere aztertu dugu. Lubietarenean, hiru ez dira agertu ere egiten, eta gainerako zortzietan, 33 hitz ezberdin atzeman ditugu. Horra datuak (*cf.* eranskinean daude guztiak):

UBILLOS:	LUBIETA:	POMIER:
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>-tasun</i>: 18 hitz</li> <li>• <i>-era</i>: 9 hitz</li> <li>• <i>-tza</i>: 8 hitz</li> <li>• <i>-keria</i>: 7 hitz</li> <li>• <i>-men / -pen</i>: 7 hitz</li> <li>• <i>-(t)ari</i>: 6 hitz</li> <li>• <i>-le</i>: 6 hitz</li> <li>• <i>-tzaile</i>: 6 hitz</li> <li>• <i>-gin / -kin</i>: 2 hitz</li> <li>• <i>-gile</i>: 2 hitz</li> <li>• <i>-di</i>: 1 hitz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>-gile</i>: 14 hitz</li> <li>• <i>-(t)ari</i>: 7 hitz</li> <li>• <i>-tzaile</i>: 3 hitz</li> <li>• <i>-tza</i>: 3 hitz</li> <li>• <i>-di</i>: 2 hitz</li> <li>• <i>-gin / -kin</i>: 2 hitz</li> <li>• <i>-le</i>: hitz 1</li> <li>• <i>-tasun</i>: hitz 1</li> <li>• <i>-keria</i>: 0 hitz</li> <li>• <i>-era</i>: 0 hitz</li> <li>• <i>-men / -pen</i>: 0 hitz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>-tasun</i>: 48 hitz</li> <li>• <i>-tzaile</i>: 30 hitz</li> <li>• <i>-(t)ari</i>: 20 hitz</li> <li>• <i>-gile</i>: 19 hitz</li> <li>• <i>-keria</i>: 15 hitz</li> <li>• <i>-gin / -kin</i>: 10 hitz</li> <li>• <i>-era</i>: 6 hitz</li> <li>• <i>-men / -pen</i>: 3 hitz</li> <li>• <i>-le</i>: 3 hitz</li> <li>• <i>-di</i>: 2 hitz</li> <li>• <i>-tza</i>: 1 hitz</li> </ul>

### • **2.2. Aztertzeke hautatutako atzizkiez**

Bost atzizki hautatu, eta azterketa xeheagoa egin dugu ondoren. Guztiak dira izenak sortzeko eratorpen atzizkiak: *-tasun*; *-keria*; *-le* eta *-tzaile*; *-gin* eta *-gile*; eta *-ari*. Sareko Euskal Gramatikan<sup>8</sup> zehaztutako banaketa jarraitu dugu atzizkien forma nagusiak eta haien aldaerak hautatzeko orduan, jakinik ere gaur egungo sailkapen bat dela hori, eta atzizkiek eta haien esanahiek ere historia bat dutela. SEG-en arabera, nolakotasuna edo izaera adieraziko lukete lehenengo biek — *-tasun* eta *-keria* —, eta izen bizidunak sortzekoak lirakeke gainerako hiruak — *-le* eta *-tzaile*; *-gin*, *-kin* eta *-gile*; eta *-ari* —.

*-tasun* atzizkia, zehazki, edozein motatako izenondo kalifikatzaileei eranstean zaie, eta harekin sortzen diren izen abstratuek oinarrian daukaten izenondoari dagokion izaera, nolakotasuna, adierazten dute, betiere SEG-ek dakarrenez. *-keria* ere izenondo kalifikatzaileei eranstean zaie, baina pertsonen buruz diharduten haiei bakarrik.

*-le* eta *-tzaile*, aldiz, aditsoinei erantsi eta ‘egile’ adierako izenak sortzeko erabiltzen dira. Sortzen dituzten izenen adieran, antzekoak dira *-gin* eta *-gile* ere; ‘ekintza bat egiten duena’ adierazten dute, eta *egin* eta *egile*-tik datoz. Haiek, ordea, izen bizigabeei eranstean zaizkie, konkretu zein abstraktuei. *-ari* —eta haren alderak—, azkenik, izen bizidunak sortzeko erabiltzen da, eta ohikoena izen konkretu bizigabeei eranstean den arren, oinarri-mota gehiago ere har ditzake, haren emankortasunaren ondorioz.

*-ari* atzizkiak baditu, dena den, esanahi aldetiko ñabardurak. Larramendik, esaterako, egilea adierazteko zerabilen, baina baita objektua edo produktua adierako izengileak sortzeko ere. Urgellen esanetan (2003: 236), *-tzaile* dugu ‘egilea’ adierazteko forma kanonikoa HH-n, eta bestelako kontuak adieraztea dagokie *-ari* eta *-le* kidekoiei;

8 Euskara Institutua, EHU, “-tasun”, “-keria”, “-tzaile eta -le”, “-ari”, “-gile, -gin”, Sareko Euskal Gramatika (SEG), [www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg).

herri eta txori izenak, esaterako. Gaur egun, nagusiki oinarriaren arabera egiten da banaketa: izenek hartzen dituzte *-ari* eta *-lari*, eta aditzek *-tzaile* (*Euskaltzaindiaren arauak*, 49).

Jatorriari buruz, aipatu beharrekoa da *-ari* eta *-keria* latinetik eta erromantzeetatik etorritako atzizkiak bide direla. Azken horren jatorria, esaterako, horrela azaldu zuen Mitxelenak: “(...) *-(k)eria* por las apariencias procede del rom. *-eria* (cast. *tontería, bellaquería, etc.*) y cuya oclusiva inicial se deberá a división equivocada de modelos romances.” (1961: 247 *apud* Bueno Berridi, 2006: 234). *-tasun*, *-le/-tzaile*, eta *-gile/-gin*, berriz, ondare zaharrekoak lirateke.

Atzizkien ezaugarriez gain, aztertutako laginetan duten emankortasuna hartu dugu irizpide nagusitzat xeheago aztertzeko bost atzizkiok hautatzean. Pomier hiztegian eta Ubillosen dotrinan, *-tasun* da emankortasun handienekoa. Ondoren, hurrenkera aldatu arren, ez dago alde esanguratsurik kopuruetan. Pomier hiztegian, honakoa da hurrenkera: *-tzaile* eta *-le*; *-gile* eta *-gin*; *-ari*; eta *-keria*. Ubillosen dotrinan, aldiz: *-keria*, *-tzaile* eta *-le*, *-(t)ari* eta *-gile* eta *-gin*. Lubietaren hiztegian, *-gile* eta *-gin*, *-(t)ari* eta *-tzaile*. Aldiz, agerraldi bakarra dago *-tasun*-ekin, eta bat ere ez *-keria*-rekin. Batzuek eta besteak darabilten hizkuntza mailaren adierazgarri izan daiteke hori: Ubillosek eta Pomierrek —Larramendi eta ondorengoan antzera— abstraktuak sortzeko atzizkiak darabiltzate. Lubietak, aldiz, ez du halakorik.

### • **2.3. Larramendiren sailkapen eta oharrak**

Euskararen gramatikan, eta zehazki, Pomier hiztegiaren datazioan eta Ubillosen tradizioan duen garrantzia aintzat harturik, aipatu beharrekoa da Larramendik atzizki horien inguruan egindako sailkapena ere. Bueno Berridik (2006: 221-222) azaltzen digunez, *Formación de los nombres sustantivos, y adjetivos* deituriko atal labur bat argitaratu zuen andoaindarrak *El imposible vencido* (1729) gramatikaren bigarren partean. Oinarria baino, atzizkia erantsita zein hitz sortzen den hartu zuen aintzat Larramendik, eta bost talde bereizi zituen. Bigarrenekoak, hirugarrenekoak eta laugarrenekoak interesatzen zaizkigu guri.

Lehen taldean adberbioak sortzen dituztenak azaldu ondoren, izen abstraktuak sortzen dituztenen taldean sartu zituen *-tasun* eta *-keria*: “*guizatásuna, guizontasúna* humanidad; *aunditasúna* grandeza. *-keria* (*querí, ò quería*): *eroquería* locura, *liquisquería* porquería.” (Bueno Berridi, 2006: 221).

*-tzaile* eta *-le*, eta *-ari*, berriz, “verbales del activo” deitutakoen barruan azaldu zituen, hirugarren taldean: “Erromantzez eta latinez *-or* amaiera dutela *doctor, lector, auditor* euskara hiru modutara, *-tzaile* amaiera dutela: *eracastzalle, iracurtzálle, aditzálle*. *-le* bidez: *eracásle, iracúrle, adile*. Eta *-ari* (*taria, ò aria*): *eracastaria, iracurtaria, aditaria*”. (Bueno Berridi, 2006: 221). Laugarren taldean, “erromantzez ofizioa adierazi eta *-ero* amaiera dutenen kideak” sartu zituen: “*-gile, bizarguille* barbero, *osaguille* medico, *burniguille* herrero. *-gin* (*guiña*): *oguiquiña, oquiña* panadero, *sorguiña* hechizero brujo”. (Bueno Berridi, 2006: 222). Amaitzeko, “verbales del neutro y passivo” deritzenak bereizi zituen (*-kor, -koi*).

- **2.4. Ubillosen dotrinakoak**

Xeheago aztertutako bost atzizkietan, 47 hitz ezberdin topatu ditugu Ubillosen dotrinan. OEHn bilaketa eginda, espero izatekoa zenez, aurrez lekukotuak dira haietako gehienak. Horra ateratako datuekin osatutako taula (3):

(3) *Ubillosen dotrinan, hautatutako atzizkiekin eratorritako hitzak:*

Atzizkiak	Lehen lekukotasunak	Lehenak Hegoaldean	Aurrez lekukotuak	Guztira
-TASUN	3	1	14	<b>18</b>
-TZAILE -LE	0	0	12	<b>12</b>
-GILE -GIN -KIN	0	2	1	<b>3</b>
-ARI	0	0	6	<b>7</b>
-KERIA	0	0	7	<b>7</b>

- **2.5. Lubietarenak**

(4) *Lubietaren hiztegian, hautatutako atzizkiekin eratorritako hitzak:*

Atzizkiak	Lehen lekukotasunak	Lehenak Hegoaldean	Aurrez lekukotuak	Guztira
-TASUN	0	0	1	<b>1</b>
-TZAILE -LE	1	0	2	<b>3</b>
-GILE -GIN -KIN	12	2	2	<b>16</b>
-ARI	0	0	7	<b>7</b>
-KERIA	0	0	0	<b>0</b>

Aurreko bi lanetan baino nabarmen lekukotasun gutxiago ditugu Lubietaren hiztegian, besteak beste, lanaren beraren izaeratik eta egituratik. Izan ere, euskaraz

irakasteko eskuliburu bat izanik, oinarritzko hitzak azaltzera mugatzen da, inguruan erraz entzungo zituenak. Erdal jatorrikoak erabiltzeko joera ere badu, eta gainera, eskuliburuaren zati handi bat hartzen dute aditz taulek eta antzekoek.

Aztertutako atzizkietan, 27 hitz baino ez dira ageri. Nabarmena da *-gile*, *-gin* eta *-kin* eta *-(t)ari* sailekoak direla ugarienak, ofizioekin lotutakoak gehienak, herrikoia goak eta hizkuntzan dagoeneko bertakotuak. Gainerako atzizkietan, ez dago hitzik edo oso bakanak dira adibideak.

### • **2.6. Pomier hiztegiak**

Editoreek [2020: 68-79] emandako zerrendetatik zenbatu ditugu horien artean zenbat diren hapax-ak, lehen lekukotasunak, Hegoaldeko lehen lekukotasunak eta Hegoaldean ere aurrez lekukotuak. Ondoko taulan (1) ageri dira datuok; Ubillosen dotrian ez bezala, agerraldi bakoitza zenbatu dugu, hitzen bat edo beste errepikatu arren, esanahi ezberdinekin emanak daudelako.

(1) *Pomier hiztegian, hautatutako atzizkiekin eratorritako hitzak:*

<b>Atzizkiak</b>	Hapax-ak	Lehen lekukotasunak	Lehenak Hegoaldean	Aurrez lekukotuak	<b>GUZTIRA</b>
-TASUN	3	12 (%25)	19	13	<b>47</b>
-TZAILE -LE	4	9 (%27.2)	19	0	<b>32</b>
-GILE -GIN -KIN	5	10 (%34,4)	7	7	<b>29</b>
-ARI	3	4 (%25)	7	6	<b>20</b>
-KERIA	2	4 (%26,6)	4	4	<b>14</b>

Ehunekotan, gutxi gorabeherako zenbaketa dela jakinik —egileek aipatu 500 lekukotasunak eta geure zenbaketa aintzat hartuta—, *-tasun* atzizkiak %9,6ko erabilera luke Pomier hiztegiak hitz eratorrien artean. Gainerakoen ehunekoak ere zehaztu ditugu goiko taulan.

Atzizki jakin batzuen azterketa delarik ere, Pomier hiztegian kopuru esanguratsua osatzen dute lehen lekukotasunak. *-gile* atzizkiak eta haren aldaerek lukete ehunekorik handiena (29tik 10, %34,4), eta *-tzaile* eta *-le* (32tik 9, %27,2), *-keria* (14etik 4, %26,6), *-tasun* (47tik 12, %25) eta *-ari* (20tik 4, %25) lituzke hurrenkeran. Batez beste, beraz, %27,5 (142etik 39) osatuko lukete lehen lekukotasunak aztertutako atzizkietatik eratorritako hitzen artean. Horiei Hegoaldeko lehenbizikoak gehituz gero (142tik 56, %43,2), nabarmen haziko litzateke ehunekoa.

Aztertutako laginen arteko bistako aldeak aipatu behar genituzke aurrena: dotrina bat da lehenengoa, ikasliburu bat bigarrena, eta hiztegi bat hirugarrena. Lagin bakoitzaren bolumena eta aztertutako hitz kopurua ere ez dira parekoak. Ezberdintasun horiek aintzat hartuta, aise azal daiteke, esaterako, Pomier hiztegiko lehen lekukotasunak Ubillosen dotrinan baino askoz gehiago izatea. Lan bakoitza zein garaitan kokatu dugun ere aintzat hartu behar da: hasiera batean, Larramendiren HH-aren aurrekotzat hartu ditugu hiztegia eta ikasliburua, eta haren ondorengo batek egindakoa da dotrina. Pomierrena 1808 ingurura eramango bagenu, noski, nabarmen hustuko litzateke lehen lekukotasunen multzoa.

### **3- DATUEN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIOA**

- **3.1. Ubillosen dotrinako lehen lekukotasunak**

Ubillosen kasuan, lehen lekukotasun gisa hartutako bi horiek zer diren azaldu behar genuke. *-tasun* atzizkiari dagozkio biak: *libertasuna* (54) eta *doatasun* (59). Izan ere, Larramendiren ondorengo izateak asko murrizten du lehen lekukotasunen kopurua.

OEHren arabera, Ubillosek baino ez du erabili *libertasun*; ez aurretik, ez ondoren, ez du beste agerraldirik. *Libertate* edo *libertade* dira tradizioz euskalki guztietan erabili izan direnak; beranduago eta urriago, *askatasun*. Adieraz ez luke bestelako esanahirik —“*Heren legea ta lenagotik zuen eskua ta libertasuna ez galtzeagatik eraso zien etsaiari*” (54) —.

*Doatasun*, "Dicha, felicidad" eta "gloria celestial" adieran darabil Ubillosek, eta OEHN markatua dago harena dela lehen lekukotasuna —“*Orregatik etzuen uste emen munduan zorion edo doatasun oso beterik, ezpada gero Zeruan*” (59)—. Antzeko testuinguruan darabil ondoren Agirre Asteasukoak ere (AA CCErac 283s). Hiztegieta, Añibarrok (*cf.* 1880) eta Maurice Harrietek (1890) jaso zuten hau ere, Larramendik ez dakartzanak osatuaz.

Bi kasuak aztertuta, beraz, Ubillosen lehen lekukotasun urriak berak egindako moldaketak direla pentsa genezake, larramenditarren tradizioari jarraituz betiere.

Salbuespen dira Ubillosek Hegoaldean lehen aldiz lekukotutako hitzak ere. Eskura ditugu adibide bakanetan, Leizarraga eta Axular ageri da aurrekari gisa: *gatibutasuna* (21), *gathibutasunean* (Lç *Ins* A 7v). *gaitzquin* (9); *gaizkina* (Ax 287 (V 192)). Zaila da pentsatzea Ubillosek Leizarraga ezagutu izango zuela; beraz, berak asmatua izan liteke *gatibutasun* ere.



- **3.2. Lubieta ren lehen lekukotasunak**

OEHn bilatuaz, *-gile* atzizkidunak dira aurreko lekukotasunik ez duten Lubieta ren hitz gehienak. Aipatu bezala, ofizioak adieraztekoak dira, eta elkarren segidan datoz eskuliburuan. Leizarragak emandako pare bat kenduta — 111. *Sillanguilleac / Platteros* [Lç *Act* 19, 24: *zilhargile*]; 164. *Gaisquille guciac / malhechores* [Lç *Lc* 23, 33 *gaizgileak*]— aurreko lekukotasunik gabeak dira ia denak: *Pichelguilleac / Picheleros* (112); *Minaguilleac / Minadores* (112) ; *Velaguilleac / Veleros* (113); *Sombrelluguilleac / Sombrereros* (113); *Espattaguilleac / Espaderos* (113). Lubieta ren kasuan ere, gainera, zaila da pentsatzea Leizarraga ezagutuko zuenik. Antzeko beste hainbatek, berriz, Larramendiren HH-an dute ondorengoa: *Tornerguilleac / Toneleros* (112) [Lar: *tonelgile*]; *Cordelguilleac / Cordelero* (112) [Lar: *kordelgillea*]; *Corgoyguilleac / Cordoneros* (112) [Lar: *kordoigille*]; *Cupelaguillea / Cubero* (113) [Lar: *upelagile*]; *Pelucaguillea / Peluquero* (113) [Lar: *pelukagillea*].

*-tzaile* atzizkiarekin, berriz, honakoa da OEHn emaitzarik ez duen kasu bakarra: *Tragazallea / Tragador* (16 /129). Gainerako autoreek *irensle* darabilte, *Pouvreaurekin* (*iretsle*) edo Larramendirekin hasita (*iresle*). Horrek erakusten digu aldea dagoela Lubieta ren eta Ubillos baten artean, bai hizkuntzaren mailari dagokionez, bai erdal ordainekiko dependentzian. Adibide horretan nahiz aurrez aipatutakoetan, argi ikus daiteke Lubieta ren lanean gaztelerazko ordainaren oinarria mantentzen dutela hitz gehienek, *-dor* eta *-ero* atzizkien orde z *-gile* jarrita.

Lubieta ren kasuan, geuk aztertutako bost atzizki nagusietakoak izan ez arren, aipagarri dira *Apaidina / Padrino* eta *Amaidia / Madrina* (120) ere. OEHren arabera, gipuzkerazko hitzak lirатеke —Goierri eta Beterrikoak, zehazki—, eta Larramendirekin agertzen dira lehenengoz. Lubieta renak, beraz, lehen lekukotasunak genituzke.

- **3.3. Pomier hiztegiko lehen lekukotasunak**

Pomier hiztegian aztertutako bost atzizkiotan lehen lekukotasunak %27,5 izateak merezi du hausnarketa bat. Gomez-Lopez eta Zulaikak (2020: 70) nabarmentzen dutenez, horietako askok Larramendiren hiztegian dute hurrengo agerraldia. Xeheago aztertutako atzizkietan, honakoak dira emaitzak, OEHren arabera: *-tasun* atzizkiaren kasuan, 12tik 7k dute hurrengo agerraldia HH-an; *-tzaile* eta *-le*-rekin osatutakoetan, 9tik 7k; *-gin* eta *-gile*-n, 10etik 8k; *-ari* eta haren aldaeren kasuan, 4tik 3k; eta, *-keria*-n, 4tik 1ek. Bost atzizkiak kontuan hartuta, beraz, Pomier hiztegiko lehen lekukotasun gisa hartutako 39 hitz eratorrietatik 28k dute hurrengo agerraldia Larramendiren hiztegian.

### 3.3.1. Pomier hiztegia eta Hiztegi Hirukoitza

Pomier hiztegiaren eta HH-aren arteko harremana aztertzean, lehenengoa Larramendiren hiztegiaren aurretik egingo dela zehazteko, halako kasuak aztertu zituzten Gómez-Lópezek eta Zulaikak —hurrengo agerraldia HH-n duten lehen lekukotasunak—; zehazki, *-garri* atzizkiaren adibideak emanez. Kasu horietan, hiru egoera hauetako bat topatu dutela azaldu dute (2020: 24): aldaera ezberdinak direla, gaztelerazko ordaina ezberdina dela, edo aurretiko tradizioa —askotan, Iparraldekoa— duen hitz eratorria dela. Adiera edo ordain ezberdina ematea, ordea, Pomierrek Larramendi osatu edo zuzendu izanaren erakusle ere izan liteke, berariaz egin zuela pentsatuz gero. Ez dago, gainera, Pomierren kasuan Iparraldeko tradizioa ezagutu izanaren frogarik —*h*-aren erabilera hain bitxiak ezezkoan lerratzen gaitu—; bai, ordea, Larramendirenean.

Gaztelerazko ordainei erreparatuta, OEHN berretsi ahal izan dugu 26 horietatik, 12 sarreratan gaztelerazko ordaina ezberdina dela Pomier hiztegian eta HH-an. *-tasun-* en, eta *-tzaile* eta *-le* atzizkietan daude horietako gehienak —10—, eta *-gin* eta *-gile-* en gainerako biak. *estutasuna*, esaterako, “aprieto, estrechura” (1000) gisa dakar lehenengoak; Larramendik, aldiz, “presura”. *harrotasuna*, “faramalla” (1670) eta “orgullo” (1793) gisa Pomier hiztegiak; Larramendik, aldiz, “arrogancia”. *hubeltasuna*-ren ordaina “cardenal” da Pomierren; HH-n, aldiz, “palidez, amarillez”. Batentzat askatasunaren zentzua du *lasaitasun-*ek —“(sobrada) libertad”—, bestearentzat ahularena —“flojedad <-x-> que no aprieta”—. *hargaltasuna* (1683), berriz, “fragilidad” itzultzen da Pomierren, eta “flaqueza” HH-an.

*eravilzallea* sarreran, “portador” (924) dago Pomierren, eta “administrador” HH-an. Horrela, baita ondorengoetan ere: *ampartzallea* “protector” (179) batean, eta “apadrinador” bestean; *(ezur-)osatzallea* “algebrista” (994) batean, eta “curandero” bestean. *gastatzallea* “pródigo” (1232) batean, eta “gastador” bestean. *Sargiña* (2202), berriz, “tiesto” itzultzen da Pomierren, eta “vergel” dakar Larramendik.

*-gile* atzizkian gutxi dira gaztelerazko ordaina ezberdina dutenak. Ziurrenik, ofizioak adieraztekoak izateaz gain, oinarri mailegatuaren gainean gaztelerazko *-ero* edo *-dor* atzizkien ordez *-gile* jarrita sortuak direlako gehienak. Bada salbuespen bat, ordea: *siñuguillea* “fisgón” (3151) dakar Pomier hiztegiak, eta “gestero”, “señero”, “figurero” Larramendik. Azkenik, *necazaria* “labrador” (2418) dakar lehenak, eta “(Hombre del campo)” eta “Trabajador, por su jornal” bigarrenak.

Horrezaz gain, euskarazko ordainetan batek eta besteak aldaera ezberdinak ematen dituztela ikusi dugu, gutxienez, kasu hauetan: 3384 *umequeria* [Lar. *humequeria*], 3071 *relojuguillea* [Lar. *erlojuguillea*], 613 (*carga-*)*eravilzallea* [Lar. *eraviltzailea*], 2636 *osticolaria* [Lar. *osticaria*].

Aipagarri dira hemen Urgellek (2003: 212-213) HH-aren inguruan egindako azterketan eman zenbait datu: atzizki bakoitzak zenbat adibide duen corpusean, eta zein diren 1745 baino lehen lekukotuak. *-tasun*-en kasuan, 31tik 17 dira; *-keria*-n, 22tik 9; *-ari*-n, 153tik 9; *-tzaile* eta *-le*-n, 150tik 22; *-kin* eta *-gin*-en, 20tik bakarra; eta *-gile*-n, 27tik 3. Agerian geratzen da horrela Larramendik hitzberrigintzan eta hiztegia zabaltzen egindako lana, nahiz eta haietako batzuk tradiziotik hartu edo haietan oinarritu.

### 3.3.2. Pomier eta Iparraldeko autoreak

Pomier hiztegian diren Hegoaldeko lehen lekukotasun asko (Gomez-Lopez eta Zulaika, 2020: 75), berriz, Leizarragaren (1571), Etxeberri Ziburukoaren (1627/1669) eta Axularren (1643) obretan publikatu ziren lehenago, eta Silvayn Pouvreauren (ca. 1659-1665) eta Pierre Urteren (ca. 1715) hiztegieta ere ageri dira. Hala berresten dute Gomez-Lopez eta Zulaikak emandako zerrendek eta geure azterketak. Lekukotasun horiek guztiak ez genituzke berdin hartu beharko, ordea. Eranskin gisa emandako datuetan, \* bat jarri dugu egileak lekukotasun horien aurrekaria Pomier hiztegiaren egileak ezagutu ezin zitzakeenetan dagoenean; alegia, aurrekari gisa Pouvreauren edo Urteren hiztegiak ageri diren hitzetan.

Pouvreauren kasuan, badakigu Pomier hiztegiaren egileak ezin zezakeela eskura eduki hark 1659-1666 artean landutako euskara-frantses hiztegia. Izan ere, Pouvreaux ezin izan zuen hiztegirik argitaratu, ezta Hiztegi Laukoitzerako egindako zirriborrorik ere (Gomez, 1997: 373). Eskuizkribuak Parisko “Bibliothèque National”-ean egonik, haren lana oharkabean pasatu bide zen XIX. mendera arte. Berdin gertatu zen Urteren eskuizkribuekin ere —gramatika, hiztegia eta zenbait itzulpen—, autorea Ingalaterrara erbesteraturik, ez baitziren argitaratzen hasi XIX. mendera arte (Gomez, 1997: 370). Zulaikak (2012: 60) zehazten digunez, Vinson eta Clarke egin zuten (1893 eta 1894) *Grammaire Cantabrique*-ren lehen edizioa, eta Urkizuk (1989) *Dictionarium Latino Cantabricum*-ena.

Horiek horrela, bazterrera utz dezakegu Pouvreaux eta Urte iturritzat jotzeko aukera, nahiz eta Pomier hiztegioko lekukotasun asko aurrez haien hiztegieta agertu.

Erdaretako ordainez gain, euskarazko sarreran ere aldaera diferentea dute askok. Pomier hiztegia Urtererekin alderatuta ere, aldaera ezberdinak ematen dituzte sarri.

Etxeberri Ziburukoaren kasuan, galdutako hiztegia ez, baina posible da *Manual Devotionezcoa* (1627-1669), *Noelac* (1631) edo *Eliçara erabilltceco liburua* (1636-1665-1666) ezagutu izana Pomier hiztegiaren egileak, behin eta gehiagotan argitaratu baitzituzten. Dena den, Hegoaldeko lehen lekukotasunen artean ez ditugu aurrekari asko aurkitu haren lanetan. Bat aipatzearen: *aucilaria* (197), *hauzilari* (EZ Man I 58). Axularrekin ere, beste horrenbeste esan liteke. Posible da *Guero* (1643) ezagutu izana, baina Pomier hiztegian ez ditugu hark lehen aldiz erabilitako adibide asko aurkitu. Bat aipatzekotan, horra: 1016 *eiztaria* “cazador” (1016), *ihiztaria* (Ax 392 (V 256)). Hitz hori, gainera, ezaguna izango zen Gipuzkoan bestela ere.

Hegoaldeko lehen lekukotasunen artean autore lapurtarren bat nabarmentzekotan, Leizarraga aipatu beharko genuke. 56tik hitzetatik 15etan, hura ageri da aurreneko. Ez dugu uste, dena den, Pomierrek hura erabili ahal izango zuenik, Hegoaldean behintzat ez baitzen eskuratzeko erraza. Horren erakusle da Larramendi bera: Baionako egonaldian kontsultatu ahal izan zuen Leizarragaren Testamentu Berria (*Iesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571), Gaztanbide izeneko Baionako kanonigo batek ale bat utzi ondoren (Tellechea-Idigoras, 1966: 175-176). Gainontzean, Iparraldeko egileek edo atzerriko filologo profesionalek soilik erabili ahal izan zuten garai hartan. Zulaikak (2012: 46) zehazten digu iturri gisa erabili zutela Leizarraga Pouvreaux (1659-66), Oihenartek (1657), Lhuydek eta Jonesek (1703), Lhuydek (1707), edo Parryk (1707).

Laburbilduz, beraz, Pomier hiztegiko Hegoaldeko lehen lekukotasunak 56 badira, egileak eskura ezin zitzakeen lanetakoak dira 24 aurrekari (Urterenak eta Pouvreaurenak). Gutxi gorabehera erdiak, atzizki guztietan. Beste 15, Leizarragaren obretan ageri dira lehenago —esan bezala, zaila da Pomierrek hura ezagutu izana—, eta Etxeberri Ziburukoaren, Axularren, Voltoiren eta Materraren artean banatuta daude gainerako 17ak. Kontuan izatekoa da, gainera, 56 horietatik 46 Larramendik ere badakartzala (ikus zerrendak bukaerako eranskinean).

Horrek bide ematen digu, orain arte landutakoa ez ezik, bestelako hipotesi bat planteatzeko: zenbait kasutan behintzat, Larramendi izan ote zen Iparraldeko autoreen eta Pomierren arteko zubi. Eta zuzenean Larramendi bera ez bazen, 1808 baino lehenagoko larramenditarren bat. 56 horietatik 46 kenduta, honakoa ikusten dugu gainerako 10 kasuetan: Cardaberazek dakar 3072 *recardaria* “revendedor” [Cb EBO

41], eta Cardaberazek eta Mendiburuk 168 *aurtasuna* “niñez” [OtGai III 58] [Cb EBO 4]. Eta 3077 *sendotasuna* “rebustez, fortaleza” Añibarrok [Añ EL1 181s. (1802)].

Beste zazpiak hauek dira: 1699 *herreparo baguetasuna* “inadvertencia” — *arretabage* “inadvertencia” dakar Larramendik—, 1453 *igartasuna* “sequedad” — *idortasun* daukate Larramendik eta Mendiburuk—, 2461 *nebri-gabetasuna* “inmensidad” —Guerricok *neurribagetasun* “inmensidad” [Gco II 58. 1858]—, 3396 *urdintasuna* “azulejo”, 3283 *tontoqueria* “patochada”, 3285 “rudeza” eta 3265 *t. Utzi* “desanarse”, 831 *corritzallea* “tragaleguas” eta 838 *contu-arzallea* “veedor” —*artzallea* “tomador, recipiente, acogerdor” badakar Larramendik—.

### 3.3.3. Azalpenerako hipotesiak

Lana hipotesi bati tiraka hasi badugu ere, bestelako begirada bat gailendu zaigu aurrera egin ahala<sup>9</sup>. Oraindik Pomier Larramendi aurrekoa dela suposatuz gero, ordea, ondoko galdera hau sortzen da: nola azaldu horrebeste lehen lekukotasun agertzea Pomier hiztegiaren? Gomez-Lopez en eta Zulaikaren esanetan (2020: 79), asko garai hartako euskararen erabilera orokorreko hitzak zirela pentsa dezakegu, baina Larramendiren aurretik Hegoaldean publikatutako lanen eskasiagatik, ez zirela lehenago idatziz jaso. Ez dago, behintzat, Pomier hiztegiaren egileak Ipar Euskal Herriko obrak ezagutu izanaren aztarnarik, eta oso hipotesi garestia da hori Hegoaldeko lehen lekukotasun gisa hartutako asko Larramendiren bidez jaso zituela pentsatuz gero. Are garestiago, -h-a zertarako darabilen kontuan izanda (*cf.* 5. atala).

Urgellek aipatua du (Urgell, 2000: 811 apud Gomez-Lopez eta Zulaika, 2020: 79) “Hegoaldeko literatur hizkuntzan arrunt bilakatu diren hainbat eta hainbat hitzen etorkiari jarraitu behar” litzaiokeela, “bai baitirudi Iparraldeko literaturaren eraginez sartu izan zirela, sarritan zuzenean HH-aren bitartez, bestetan Larramendiren ondoko idazleen irakurketen bitartez”.

Pomier hiztegiaren edizioaren egileek beste bi hipotesi ere erantsi dizkiote horri (2020:79): Larramendi baino lehenago “beste lexikograforen batek” Iparraldeko tradizioako hainbat hitz bildu izana, edota, zenbait kasutan, Pomier hiztegiaren egileak berak sortu izana hitz horiek, aipatutako Iparraldeko autoreekin lotura zuzenik izan gabe. Amaieran azalduko dugun bezala, hirugarren bat erantsi beharko genuke: hitz horietako asko Larramendiren bidez jaso izana. Kasu horretan, hobeto uler daiteke

9 5. kapituluaren garatu dugu hipotesi hori, Lakarraren (2022) artikulu baten eskutik.

Pomierren hiztegiak hitzaurrerik ez inongo azalpenik helburuez eta metodoez ez edukitzea, hura osatzen ari zenez, ez zuelako azalpen beharrik.

• **3.4. Sarasolaren datuak lehen lekukotasunen inguruan:**

Sarasolaren lan klasikoari (1997) erreparatuta, aipatzeko moduko datu batzuk badira lehen agerraldien inguruan. Testuetan aurkitutakoen bilakaera eman zuen hark —gutxi erabilitako hitzak kendurik—, mende erdika (1997: 622). Nabarmena da bilakaera horretan XVIII. mende hasieratik aurrera dagoen goranzko joera, nola hitz berrien zenbaki absolutuetan, hala lehen agerraldien portzentaje<sup>10</sup>.

Pomier hiztegiaren datazio garaian —ustez, 1701-1750 artean—, %4,5 dira lehen agerraldiak. Ondoren bada jauzi bat: %9,2 dira 1751-1800 artean, eta %11,1 hurrengo mende erdian. Goraldi hori “Hegoaldeko ekoizpenaren pizteari dagokio batez ere”, Sarasolaren hitzetan (1997: 621). Hala dio, zehatzago: “1750-1800 epeko 1045 lehen agerraldietatik iparraldekoak (i + z)<sup>11</sup> 156 —hots, %14,9—, eta bizkaiera hutsekoak 39 —hots, %3,7— direnez gero, nabaria da mende erdi horretako gorakada gipuzkeraren inguruan gertatzen dela”. Gogora dezagun Gomez-Lopezek eta Zulaikak (2020: 3) “euskara gipuzkoarrean” emandako lehenengoen artean dutela Pomier hiztegia, Lubietarenarekin batera —*Diccionario en castellano y bazquence* (1728)—.

Garai hartara arte, Iparraldeko hitzak dira nagusi lehen agerraldietan: euskara orokorreko lehen agerraldien %34,3 osatzen dute 1601-1650 artean, hau da, lapurtera klasikoaren “urrezko aroan” (Sarasola, 1997: 624-625). XVII. mendearen bigarren erdian ere, handia da oraindik ehunekoa: %28,1. Hain zuzen, Pomier hiztegian aurkitutako Hegoaldeko lehen lekukotasun asko Leizarragaren (1571), Etxeberri Ziburukoaren (1627/1669) eta Axularren (1643) obretan publikatu ziren lehenago, gorago aipatu dugun moduan. Denera, 56 dira Iparraldeko obretan aurkituak; HH-daude horietako gehienak (46).

Pomier hiztegiko datuekin alderatzeko, ordea, zuzenagoa da hiztegietako lehen agerraldien bilakaerara jotzea (Sarasola, 1997:628). Hor ere bada jauzi nabarmen bat XVIII. mendearen lehen erdian: 1601-1650 artean, %0,37 dira hiztegietako lehen agerraldiak; 1651-1700 artean, %11,7; eta 1701-1750 artean, %35,6. Garai horietako hiztegien ugaritasunari egotzi dakioke, noski, bilakaera hori: Pouvreau —XVII. mendearen bigarren erdian—, Urte, Harriet, eta nola ez, Larramendi —XVIII.

<sup>10</sup> Sarasolak ehunenetan emandako datuak dezimal bakarrera biribildu ditugu.

<sup>11</sup> i: Iparraldeko hitz edo adiera. z: Zubererazko hitz edo adiera.

mendearen lehen erdian—. Dena den, Pomier hiztegiaren aztertutako nominalizazio atzizkietako lehen agerraldien ehunekoak ez dabil bere garaiko lehen agerraldien portzentajetik urrun: %30,2.

Izenen lehen agerraldiei erreparatuta, 6.359 izen berri aztertu zituen Sarasolak (1997: 631), eta lehen agerraldi guztiena baino beranduxeago dator jautzia izenen kasuan: XVIII. mendeko bigarren erditik aurrera (%8,8). XIX. mendetik aurrerakoak dira ehunekorik handienak —%11,5 eta %14,8, eta %17,4 XX. mendeko lehen erdian—. Hiztegiatako datuetara joz gero (1997:633), XVIII. mendea nagusitzen da alde handiz izen berrien lehen agerraldietan.

Datu horien guztien ondoren, hitz eratorri eta elkartuen eta berezko hitzen arteko aldea aztertzen du Sarasolak, eta geure aztergaia kokatzeko ezinbestez aipatu beharreko joera bat nabarmentzen du: berezko hitzen ehunekoak gutxituz doala mendez mende, eratorri eta elkartuena handituz doan hein berean (1997: 635). Idazkera jasoa lantzeko ahaleginekin lotzen du bilakaera hori, eta hor ere, lapurtera klasikoak egin zuen urratsik handiena. Saio horien ondoren —eta herritarren ahotik edo aurreko testuetatik— datoz funtsean, Larramendiren HH eta Pomier hiztegia.

- **3.5. Literatur hizkuntza eta zenbait atzizkiren modernotasuna**

Sarasolaren beraren, De Rijken eta Lakarraren lanak aipatuz, ideia bera azaltzen du Urgellek Larramendiren eratorpena aztertzean (Urgell, 2003: 209): “Euskara aldatuz joan dela, eta atzizkibidea indartuz (cf. De Rijk 1995)”. Haren hitzetan (Urgell, 2003: 209), nabarmena da “euskaraz idazkera jaso bat landu nahi izan den bakoitzean ezinbestean hitz eratorrien kopuruak gorantz egin duela (Sarasola 1986: 206; Lakarra 1993: 345 eta hur.). Hegoaldeari dagokionez, sobera ezaguna da mendeetako axolagabekeriaren ondoren, lehenegoz eta sistematikoki Larramendik ehunka (milaka?) hitz berri egin zituela”.

Izen abstraktuen eta ekintza-izenen arteko bereizketa azaltzean —edo zehatzago, Larramendik erabat bereizi ez izana—, literatur hizkuntzaren garapenarekin lotzen du Urgellek “atzizkien erabilera aberats eta finko xamarra” (Urgell 2003: 232), Sarasolaren (1986 eta 1997: 634-637), Lakarraren (1992: 292-294) eta Buenoren (2004 eta 2006) ikerketak oinarri hartuta.

Gai horretaz ari dela, zenbait atzizkiren modernotasunaren berri ematen du Sarasolak (1997: 635-637). Horretarako, eratorrien agerraldien maiztasun absolutua, 1900 baino lehenagoko agerraldiak, hortik aurrerakoak, eta bi horien batuketa eginda,

XX. mendeko atzizkien agerraldien ehunekoa. Geuk hautatutako atzizkien datuei erreparatuz gero, horrela kokatuko genituzke hurrenez hurren. *-tasun*-ek, agerraldi guztien %51,3 ditu 1900tik aurrerakoak; *-keria*-k, %43,8; *-tzaile*-k, %33; eta *-le*-k, %28,8. Gainera, eratorbidearen emankortasuna gogoan, aipatzekoa da lehen agerraldi guztien ehunekoa baino garaiagoa dela hitz atzizkidunek emandakoa. Argigarria da hori, gure ustez, eratorbidearen eta literatur hizkuntzaren arteko harremana azaltzeko.

Gogora dezagun, aurrez aipatu bezala, geuk aztertutako atzizkiek hurrenkera bera jarraitzen dutela emankortasunean: nola Pomier hiztegian hala Ubillosen dotrinan, *-tasun* da hitz eratorri gehien sortzen dituen, eta atzetik lituzke, hurrenez hurren, *-tzaile* eta *-le*; *-gile* eta *-gin*; *-ari*; eta *-keria*. Bestela da Larramendirengan, Urgellek (2003) aztertutako laginean: *-ari* eta *-tzaile* dira alde handiz emankorrenak, eta atzetik, *-gile* eta *-gin*, *-tasun* eta *-keria*.

#### **4- OINARRIAK ETA ATZIZKIAK:**

- **4.1. -tasun:**

Atzizkien ezaugarriari buruzko (&2.2. *Aztertzeko hautatutako atzizkiez*) atalean azaldu bezala, Pomier hiztegian ohikoena da *-tasun* atzizkiak izenondo bat hartzea oinarri, euskal jatorrikoa. Salbuespenak gutxi dira aztertutako 48 eratorrien artean, oinarrian izenak hartzen dituztenak. Gomez-Lópezek eta Zulaika Hernandezek emanak dira haietako bi: *nazcatasuna* (2424) eta *aurtasuna* (168). Geuk hiztegian bilatutakoetatik, berriz, beste lau aipa ditzakegu: *aidetasuna* (213), *adisquidetasuna* (225, 227, 288) — atzizki kateak dira—, *jaungoicotasuna* (1882) eta *laguntasuna* (2067). Ez dago maileguen gainean eraikitako eratorririk.

Egitura ohikoena berbera da Ubillosen dotrinan ere —32 agerraldi baina 18 hitz ezberdin aztertuta—, baina badira salbuespenak, oinarritzat izenak hartzen dituztenak: *doatasun* (59) -lehen lekukotasuna-, *bildurtasuna* (12) eta *lecucotasun* (27, 103). *santutasun* (61) adibidean, oinarrian izen bat dagoela pentsa liteke hasiera batean, baina adjektibo gisa ere erabili ohi da, OEHren arabera. Hitz hori da oinarrian mailegua duen bakarra, erlijioari hertsiki lotutakoa eta aspaldi bertakotua.

- **4.2. -keria:**

Pomier hiztegian, espero bezala, izenondoak dituzte oinarri *-keria* atzizkiarekin eratutako hitzek. 15 hitz eratorri aztertuta, izen gisa har zitezkeen bakarrak izenondo kalifikatzaile modura ere irakur ditzakegula ohartzen gara, izaera despektiboa emateko



erabiltzen baititu: *umequeria* (3384) eta *atsoqueriac* (202). Ubillosen kasuan ere —10 hitz ezberdin aztertuta—, antzera gertatzen da eta *sorginkeria* (52) adibidearekin.

Hitz eratorri gehienek euskal jatorriko oinarria dute: euskal jatorriko oinarria eta mailegatutako atzizkia genituzke, beraz, ohiko egitura gisa. Salbuespen bana aipa dezakegu bi laginetan, oinarritzat mailegua dutenak: *golosoqueria* (1371) Pomier hiztegian, eta *desonesqueria* (36) Ubillosen dotrian.

- **4.3. -tzaile / -le:**

Aditzoinei erantsi ohi zaizkie *-le* eta *-tzaile*. Pomier hiztegian, *buru-ausitzallea* (465) litzateke salbuespentzat har daitekeen bakarra, partizipioaren gainean egina baitago. OEHko *haustaile* sarreran, *austaile* (Dv), *hautsaile* (*au-* Lar Sup, vEys), *haustzaile* (H - *tsz-*) aldaerak ere aurki ditzakegu, baina baita *hausitzaile* (G-azp-to ap. A) eta *ausizalle* (Lar, Añ) ere. Bistan da fonologiak eta euskalkiak eragina dutela aditzoia ala partizipioa hautatzeko orduan; Iparraldeko autoreek egiten dute, batez ere, lehenengoaren alde. Larramendik, berriz, biekin dakar. Antzerako adibidea genuke *hecitzallea* (1622) ere: halaxe dakar Larramendik, baina *heztaille* (Hb, Dv) dakarte Hiribarrenek eta Duvoisinek, haren ohiko zordun izan arren.

Pomier hiztegi 33 adibideetatik, oinarrian mailegua dutenak dira bederatzik: *padecitzallea* (2751), *tintatzallea* (3296), *amparatzallea* (179), *gastatzallea* (1232), *defenditzaillea* (757), *guiatzallea* (1288), *hacusatzaile* (*guezurrezcoa*) (1726), *hengañatzallea* (1748) eta *señalatzallea* (3173). Ubillosen dotrian, berriz, 13tik hiru lirateke maileguekin osatutakoak: *salvatzailea* (9), *erremediatzallea* (65) eta *kreatzalleagan* (107). Gainerakoan, euskal jatorriko oinarria eta atzizkia hartzea litzateke egitura ohikoena.

- **4.4. -gile / -gin / -kin:**

*-gile* eta *-gin* izen bizigabeei eransten zaizkiela ikusi dugu, eta halaxe da aztertutako bi laginetan ere. *egin* eta *egile*-tik datozela aipatu dugu lehenago, eta horixe da Pomier hiztegian aurki dezakegun salbuespen bakarretakoa oinarriaren kategoriari dagokionez: *eguillea* (970). Adibide berezi bat ere badago, ordea: *charquin portatu zan* (811), aditzondo gisa erabilia. Gómez-López eta Zulaikak (2020: 113) OEHko *zarkin* sarrerari dagokiola azaldu dute, adierazgarritasunaren ondorioz sabaikari afrikatu bihurtu dena.

Oinarriari begiratuta, mailegu batzuk badaudela ikus dezakegu Pomier hiztegian: *armaguillea* (234), *justiciaguillea* (1906), *lamparaguillea* (2131), *sombralluguillea*

(3116), *juramentuguillea* (1905), 2328 *mantaguillea* (2328), *relojuguillea* (3071), *santuguillea* (3220). *-gin* eta *-kin* aldaeretan, aldiz, denak dira euskal jatorrikoak. Nabarmentzekoa da Lubietak ere antzeko joera duela, 3.9-n jasotako adibideek erakusten dutenez.

- **4.5. Zenbait aldaeraren alternantziak:**

Azkueren *Morfología Vasca* (1923-25) aipagai duela, *-tapen* eta *-tzapen*, eta *-taile* eta *-tzaile* -geuri dagokigunez- aldaeren alternantziari buruzko ohar zenbait ematen ditu Bueno Berridik (2006: 232). Hark azaltzen duenez, Altubek *Morfología*-ri egindako oharretan zehaztu zuen aditz-izena *-te* bidez egiten duten aditzek *-tapen* eta *-taile* alderak hartzen dituztela (*ikus-te*, *ikus-taile*, *ikus-tapen*); *-tze* bidez egiten dutenek, aldiz, *-tzapen* eta *-tzaile* (*eder-tze*, *eder-tzaile*, *eder-tzapen*). Eredu berriagoek, ordea, artizkidun formak ordezkatu dituztela azaltzen du, besteak beste, *eros-le* aipatuz.

Bueno Berridiren azalpenari jarraituz, artizkiaren galeraz aritu zen Mitxelena kasu horietan, eta “derrigortasunaz” mintzatu zen De Rijk. Alegia, azken batean, partizipioaren formak baldintzatzen ei du *-pen/-tzapen* alternantzia, baita *-le* ala *-tzaile* erabiltzea ere. “Azken honetan partizipioak erabat baldintzatzen du *-le* ala *-tzaile* izatea, eta *-tzaile* eskatzen den tokietan forma hori derrigorrezkoa da” (Bueno 2006: 232).

Geuk aztertutako laginetan, nabarmena da *-tzaile* nagusitzen dela, bai Pomier hiztegian, bai Ubillosen dotrian. Dena den, suma dezakegu alternantzia horren arrastorik: aditz-izena *-te* egiten duten kasuetan, *-le* aldaeraren erabilera dago, adibideak urri izan arren. Pomier hiztegiak, esaterako, *hirulea* (1695), baita *escalea* (1082, *h-*1759) ere, azken horretan, azaldutakoaren arabera, *-tzaile* esperoko genukeen arren. Ubillosek baditu adibide gehiago: *erosleac* (20), *neq-eramalle* (42), *icasle* (77) eta *neque-emaillei* (119).

*-pen* eta *-tzapen* berariaz aztertu ez baditugu ere, zenbait adibide behintzat eman ditzakegu kontu honi buruz. Pomier hiztegian, ez dugu *-tzapen* aldaeraren erabilerarik aurkitu. *-pen* darabil aditz-izena *-tze* egiten den kasuetan ere: *hichopena* (1153), *haurrerapena eman* (1680), *luzapena (eman)* (2134). *-tza* darabil, berriz, kasu honetan: *ezconza* (885). Azkenik, aditz-izenaz egindako nominalizazio bat ere badakar: *esqueintcea* (910: “promesa”).

Azken horiekin lotuta, *-mendu/-mentu* atzizkiak ere mintzo da Bueno Berridi (2006: 231), eta Azkue aipatuz (1923-25: 69), “*-men*-en ahaide eta agian latinezko *-mentum*-en seme” direla diosku. Gainera, mailegu zaharragoetan *-mendu* < *-mentum*

leherkari ahostunaren alde egiten dela azaltzen du, eta ahoskabea mantendu dela berriagoetan (Bueno Berridi, 2006: 234, *apud* Mitxelena 1961: 230, 352-353, 360).

*-mentu*-ren —ez ordea, *-mendu*— adibide batzuk ere baditu Pomier hiztegiak, gehienak, oinarri gisa mailegu bat dutenak: *cumplimentu utsa da* (587), *hatrevimentua* (1798), *pentsamentua* (2751), *juramentuguillea* (1905). Gainera, *urriquimentua* (3333) ere badakar. Horretan gaztelera zukeen erreferentzia, ez baitu, Iparraldean bezala, *-nd-* egiten.

Ubillosek ere baditu *-men*-en adibide batzuk: *sinismen* (14, 37), *icusmena* (80), *ezagumentu* (14) Dena den, *-tza* erakoak ditu gehiago: *ezcontza* (2, 13) *vicitza* (8, 60, 80, 93), *gorputza* (75, 76, 80...), *22 morrontzatik* (22, 25), *jaiotza* (47, 61, 72...), *eriotza* (47, 54, 90...), *81 otoitza* (81, 89, 103)...

Atziki hasierako *k* eta *t* alternantziak ere mintzo da Bueno Berridi (2006: 234). *-(t)ar* eta *-(t)asun* aipatzen ditu, baina *k* dutenak ugariago direla dio; horien artean, *-(k)eria*. Gorago aipatu bezala, erromantzeko eredu berranalisien ondorioztat zuen Mitxelenak atzizkiaren aurrean herskaria sartzea.

Gure laginetan, *-keria* aldaera baizik ez dugu aurkitu. Pomier hiztegian, esaterako, Mitxelenak adibide gisa jarritako *tontería* — *-(k)eria* por las apariencias procede del rom. *-eria* (cast. *tontería*, *bellaquería*, etc.) — aurki dezakegu: *tontoqueria* (3283: “patochada”; 3285: “rudeza” eta 3265: *tontoqueria utzi*: “desasnarse”). Ubillosen dotrinan, berriz, aipatzekoa litzateke *desonesqueria* (36), oinarrian mailegu bat baitu, eta izatekotan, halako batean espero baikenezake *-eria* aldaera topatzea. Aurrez, ordea, *desonheskeria* Axularrek ere [Ax 178 (V 119)], eta *-keria*-rekin emana du Larramendik berak HH-an.

## **5- AZKEN ORDUKO HIPOTESIA: POMIER, LARRAMENDI ONDORENGO?**

Orain arte landutako hipotesian, ikusi dugu Larramendiren HH-an dutela hurrengo lekukotza Pomier hiztegian haren editoreek lehen lekukotasun gisa hartutako hitz askok. Pomier HH-aren ondorengo izan daitekeela aintzat hartuz gero, ordea, bestela irakurtzen dira datuok. Lekukotasun horiek alderantziz irakurrita ohartzen gara Larramendiren hitzberriak izan daitezkeela asko, eta Pomierrek harengandik hartu edo egokitu behar izan zituela. Berdin gertatzen zaigu Iparraldeko autorengandik hartu eta Hegoaldean lehen aldiz erabilitako hitz askorekin ere; Larramendik ere baditu horietako gehin-gehienak, eta beraz, kontuan izateko aukera bat da andoaindarra izatea zubi nagusi.

Pomier hiztegiaren edizioa (Gomez-Lopez eta Zulaika, 2020) oinarri hartuta hasitako lana amaitzear ginela gehitu diogu ondorengo atala, Lakarrak *jatorri*-ri buruzko artikulu batean<sup>12</sup> erantsitako oharren harira. Hau da, Pomierrek ere “origen, *jatorri*” bazekarrela konturatuta, hitz hori —eta beste hainbat, ondoren ikusiko dugunez — Larramendiri hartu ote zizkion galdetu beharrean gaudela. Izan ere, Lakarrak (2022: 17) azaltzen digu “ez dela zalantzarik hitza bera *nork sortu* eta are bere *HH* osatu baino lehen ere erabili zuela finkatzeko, —cf. AzkSerm. *mindun, guziakiko, hizkunde, beardanezko...*; Lakarra 1985b: 264-67—, beste 60 urtez erabiltzaile bakarra zelarik”. Eraketa bidea eta bertakotzekoa ere zehaztu litezke Lakarraren esanetan: *jaio + etorri* edo, nahiago bada, *ja(io-tza)-TIK (e)torri*. Lekukotasunen historia eginik, “atzeranzko eraketa” bidez bertakotua litzateke, “jatorrizko bekatua” esamoldetik hasita: *jatorriz-jatorrizko* → *jatorri* (Lakarra 2022: 17).

Beraz, Larramendiri hartu bide zion Pomierrek, “bere geruzaren batean, ez jakin 1808 inguruko azkenengoan ala aurreko(et)an edo hasieratik bertatik lekarkeena” (Lakarra 2022: 39). Gogoratzekoa da gugana iritsi den aleak 1808ko data duela inskribatua paper markan. Gómez López eta Zulaikaren arabera, 1808an Iruñeko *Hospital General*-eko paperarekin egindako kopia bat dirudi (2020: 12) aztertutakoak, baina funtsean 1745 aurretik egina litzateke hiztegia. Lakarraren esanetan (2022: 39), ordea, “ezin bazter liteke P-ren hiztegia *1745 ondoren* osatzen hasia izana (ez 1745 baino lehen hasi eta amaitua). Are gehiago, data horrezaz ondorengo izateaz landa, Lren *HH* ere aurrean zuelarik prestatua izatea ezin da baztertu oraingoz”.

Gehiago ere badio Lakarrak (2022: 41), *jatorri* ez ezik, beste lekukotasun batzuk aztertu ondoren: “L eta P biak Gkoak izanik, badirudi Lk behar duela zaharrago (eta dexentez irakurriago) eta Pk berriago (eta bere hizkerari aurreko tradizioari baino lotuago); bien tartean mende erdi bat bederen suposatzea ongi ezkonduko litzateke gainerako lekukotasunekin eta, zalantza gutxirekin, baita *jatorri*ekin gertatuarekin ere”.

---

12- ‘*Jatorri(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*’: *filologia ala hil*. Joseba A. Lakarra, 2022, EHU.

- **5.1. Sarasolaren datuak eta Pomier**

Datu orokorragoetatik hasiko gara. Gómez-Lópezek eta Zulaikak 54 atzizki ezberdin eta aurrizki bat aurkitu dituzte Pomier hiztegian, 500 hitz ezberdinetan —sarrera guztien %14,5—. Egileen hitzetan, “aski portzentaia handia” da garai hartako hiztegi baterako (2020: 24); hau da, XVIII. mendeko lehen erdirako. Larramendik, ordea, askoz gehiago ditu: Urgellek aztertutako laginetik —4.867 lema ezberdin— erdiak baitira eratorriak (Urgell, 2003: 212).

Larramendiren arrastoa nabari da Sarasolak (1997) hitzberrien inguruan emandako datuetan. Testuetako lehen agerraldietan 1751-1800 artean emandako goradaka gipuzkeraren inguruan gertatzen dela diosku (1997: 621), aurreko mendean ez bezala, gipuzkerazkoak baitira gehienak. Eta juxtu aldi horren aurretik kokatzen da Larramendiren *HH*. Zehazki hiztegiei erreparatuz gero, gainera, are nabarmenago ikusten da haren eragina. Hiztegiatako lehen agerraldiak %11,7 dira 1651-1700 artean, eta %35,6 1701-1750 artean, *HH*-a argitaratzen den epealdian. Hurrengo mende erdian, aldiz, %1,9ra jaisten da portzentaia hori. Añibarro daukagu hor, esaterako; beste hainbaten gisan, hitz arrunt eta dialekto partikularretatik Larramendi osatzea zen haren helburua, ez hitzberriak sortzea hizuintza tekniko-zientifikorako (“voces facultativas”).

Pomier hiztegiari helduta, hitz eratorrietan “aski portzentaia handia” izatea errazago uler daiteke, hain justu, haren ondorengo dela pentsatuz gero. Sarasolak berak (1992: 317) aipatu zuenez, “Hegoaldekoari dagokionez, Larramendiren aurreko literatur ekoizpenaren tasun nabarietako bat hitz eratorrien eskasia gorria eta atzizki bidezko — *-tasun*, beharbada *-garri*-ren bidezkoak ezik —hitz sortzerik eza da. Jakinaenez, egoera hau erabat irauliko zen *HH*-z gero”.

- **5.2. Pomierren lehen agerraldiak**

Pomierren lehen lekukotasun gisa hartu genituen 39 hitzetatik 28k dute hurrengo lekukotasuna Larramendirengan: *-tasun*-en, 12tik 9k; *-tzaile*-n eta *-le*-n, 9tik 7k; *-gile*, *-gin* eta *-kin*-en, 10etik 8k, *-ari*-n, 4tik 3k, eta *-keria*-n, 4tik batek. Hipotesi berri horrek begirada aldaturik, alderantziz aztertu ditugu eskura genituen datuak; izan ere, pentsa liteke Pomierrek Larramendiri zor dizkiola gehienak. Lehen lekukotasunak aztertutako eratorrien %27,5 izatetik, %7,7 izatera pasatu dira horrela.

Gainerako 11 hitzetan, Añibarro aurkitzen dugu sei kasutan: 1267 *gueyeguitasuna* “esceso”, 1325 “demasía” y 1973 *gueieguasuna* “superfluidad” [Añ “prodigalidad”]; 2284 *moscortutasuna* “borrachera” [Añ *moscortasuna*]; 636 *churiqueria* “lisonja” [Añ]; 2008 *laburqueria* “cortedad” [Añ “ruindad, acción vil”]; 3220 *santuguillea* “santero” [Añ]; 1521 *isil-mandataria* “alcahuete” [Añ *issil-*]. Beste bost geratuko liriteke: 2223 *muquertasuna* “terquedad” [Ur *MarII* 99] ; 2424 *nazcatasuna* “fastidio” [Ag Kr 49]; 2445 *narru-gorritasuna* “desnudez” [AA III 375 l-]; 2035 *leunqueria* “lisonja” [fB *Olg* 65); 926 *eunguillea* “tejedor, tejedora” [Erkiag *BatB* 184).

Berriz HH-koei helduta, ondoko hauek ordain berbera dute bi hiztegiatan, *jatorri*-k bezala. Gainera, OEH-ren arabera, Larramendik jaso zituen lehenengoz.

-TASUN:

- **L:** *biguntasuna* “ternura, blandura”. **P:** 341 *biguntasuna* “ternura” eta 3394 *viguntasuna* “blandura”; **L:** *ugaritasuna* “Abundancia; riqueza”, “fecundidad”. **P:** 3406 *ugaritasuna* “abundancia”; **L:** *estutasuna*: “presura”, “aprieto”, “estrechura”. **P:** 1000 *estutasuna* “aprieto, estrechura”.

-KERIA:

- **L:** *humequeria* “niñada, niñeria” / “puerilidad”. **P:** 3384 *umequeria* “perilidad, niñeria”

-TZAILE:

- **L:** *ecitzallea* “domador”, “cebadero”. **P:** 1622 *hecitzallea* “domador”; **L:** *ontzi-garbitzallea*, “fregona”. **P:** 2792 *plater-garvitzallea* “fregón o fregona”.

-ERA:

- **L:** *aciera*, *azquera* “crianza”, “educación”. **P:** 170 *aciera* “crianza, educación”; **L:** *asiera* “principio”, “origen”. **P:** 174 *asiera* “principio”; **L:** *sarrera* “entrada”, “ingreso” **P:** 1189 *hateco sarrera* “umbral” eta 3096 *sarrera* “entrada”; **L:** *tabaquera* “tabaquera” [Lar→H, Añ, Arch VocGr]. **P:** 3250 *tabaquera* “caja de tabaco” .

-GILE:

- **L:** *armaguille* “armero”. **P:** 234 *armaguillea* “armero”; **L:** *baiguillea*, *baeguillea* “cadacero”. **P:** 318 *baiguillea* “cedacero”; **L:** *juramentuguillea* “jurador”. **P:** 1905 *juramentuguillea* “jurador”; **L:** *mantaguillea* “mantero” **P:** 2328 *mantaguillea* “mantero”; **L:** *erlojuguillea* “reloxero” **P:** 3071 *relojuguillea* “relojero”; **L:** *errementaria* “herrero”. **P:** 863 *errementaria* “herrero”.

-ARI:

- **Lar:** *osticaria* “coceador”. **Pomier:** 2636 *osticolaria* “coceador”.

Azaldu beharrik ez da honez gero, baina Urgellek (2003: 212) xeheki aztertu zuenez, gogora dezagun *HH*-a “oso aberatsa” dela eratorpenean, “bai atzizki ezberdinen kopuru erraldoiagatik, baita atzizki batzuen eratorri ugariengatik ere”. Taula batean

bildu zituen hori ikusarazteko datu batzuk: atzizki bakoitzarekin haren corpusean zuen adibide kopurua, eta horietatik, zenbat ziren aurrez lekukotuak. Bereziki dira emankorrak —Larramendiren alde— goiko Larramendi-Pomier zerrendan ugarien ditugun *-gile* eta *-era* atzizkien proportzioak: 27tik 2 eta 65etik 2, hurrenez hurren, aurrez lekukotuak. Ez hainbeste, esaterako, *-tasun* (31tik 17) eta *-keria*-renak (22tik 9).

Pomierrek emandako ordain berbera eduki ez arren, *HH*-an ageri dira Pomierri egotzitako ondorengoak ere. Pentsa liteke askotan Pomierrek gaztelerazko sarrerak aberasten dituela ordain berriein:

L: *ubeltasun* “palidez”, “amarillez”. P: 1673 *hubeltasuna* “cardenal”; L: *lasaitasun* “Flojedad <-x-> que no aprieta” / *lasatasun*. “Holganza”. P: 2191 *lasaitasun* (*gueieguia*) “(sobrada) libertad”; L: *amparatzallea* “apadrinador”. P: 179 *amparatzallea* “protector”; L: *erabiltzallea* “administrador”. P: 613 (*carga*-)*eravilzallea* “ganapán” eta 924 *eravilzallea* “portador”; L: *osatzallea* “curandero”. P: 994 (*ezur*-)*josatzallea* “algebrista”; L: *gastatzallea* “gastador”. P: 1232 *gastatzallea* “pródigo”; L: *eguillea* “eficiente” “efectivo” “hacedor”. P: 1623 *heguillea* “eficaz”; L: *sinuguillea* “gestero”, “señero”, “figurero”. P: 3151 *siñuguillea* “fisgón”; L: *necazaria* “(Hombre del) campo” eta “Trabajador, por su jornal”. P: 2418 *necazaria* “labrador”; L: *acabera* “conclusión” P: 87 *acabera* “fin”.

### • 5.3. Larramendi, Iparraldekoen zubi?

Lanaren lehenengo zatian, denboran Pomier Larramendiren aurretik kokatzean, hark Hegoaldean lehen aldiz erabili izango zituen adibide ugari atera zaizkigu aztertutako bost atzizkietan: 56 denera. Horien aurrekariak zein diren ikusita, eskura izan ezin zitzakeen obretakoak dira 24 (Urtek eta Pouvreaux lehen aldiz lekukotuak). Erdiak, gutxi gorabehera. Horrek ez du esan nahi, noski, beste erdiak biltzen zituzten autoreak ezagun izan zituenik: Leizarraga (13) —zaila da ezagutzea—, Etxeberri Ziburukoa (5), Axular (4), Voltaire (3) eta Materra (1).

Iparraldeko idazle horien eta Pomierren artean Larramendi jarriz gero, ordea, ia erabatekoak dira zenbatekoak. Alegia, ustez Pomierrek Hegoaldean lehen aldiz erabilitakoetatik, Larramendik ere baditu gehien-gehienak: 56tik, 45. Atzizkiz atziki: *-tasun* atzizkian, 19tik 12; *-tzaile*-n eta *-le*-n, 19tik 18; *-keria*-n, 4tik 2; *-gile*, *-gin* eta *-kin*-en, 7tik 7; eta *-ari*-n, 7tik 6. Badakigu, gainera, hitz horiek lehenengoz lekukotu zituzten gehienak iturri izan zituela Larramendik: Leizarraga, Axular eta Etxeberri Ziburukoa.

Horra adibide batzuk, OEHN lehen lekukotasuna duenaren ondoren jarrita (datuen eranskinean markatu ditugu gainerakoak):

- [Lç Decl Mm 4r: *abrstasuna*] L: *aberastasuna* “riqueza”. P: 73 *averastasuna* “riqueza”.
- [Mat 282] L: *berotasuna* “calor, fervor, ardor”. P: 338 *berotasuna* “calor, incendio” eta 364 “ardor”.
- [Lç Ins D 4r] L: *gogortasuna*: “crueldad, rigor”. P: 1238, 3366 *gogortasuna* “crueldad” eta 1959 “rigor”.  
[Lç] L: *gaztetasuna* “juventud”. P: 1382 *gaztetasuna* “juventud”.
- [Urt I 375 “affaniae”]\* L: *atsoqueria*, *hipuya* “cuento de vicejas” P: 202 *atsoqueriac* “abusiones de viejas”.
- [Lç Ins F 6v *gaixta*-] L: *gaiztaqueria* “maldad” P: 1244 *gaistaqueria* “maldad”.
- [Lç Gal 5, 21 *h*-] L: *ordiqueria* “embriaguez”. P: 2538 *ordiqueria* “embriaguez, borrachera”.
- [Ax 6 (V 3) *defenda*-]. L: *defendatzalle* “defensor”. P: 757: *defenditzaillea* “defensor”
- [Urt IV 138: *garbitzaile*]\*. L *garbitzalle* “lavandera”. P: 1385 *garbitzallea* “lavandero”, 1386 *garbitzallea* (emakumea) “lavandera”.
- [EZ Noel 171] [Ax 360 (V 238)]. L: *eskaleak*, *eskatzalleak* “mendicantes”. P: 1082 *escalea* “gallofero” eta 1759 *hescalea* “mendigo”.
- [Lç Lc 23, 33 *gaizgileak*]. L: *guizon gaitzguillea* “alma de caballo, hombre fin conciencia”. P: 1397 *gaitzguillea* “malhechor” eta 1952 “reo”.

Lakarrak aurreratu duenez (2022: 40, oin-oharrear), ez dirudi Pomierrek beste lanabesik, “euskarazkorik eta zehazki Iparraldekorik” erabili zuenik, itzultzeko oinarri gisa hartu zuen Requejoren hiztegiak gain. Ezin horren froga positiborik eman, baina esan dezakegu, adibidez, Pomierrentzat *h*-ak ez duela baliorik —irizpide fonetiko edo etimologikorik gabe darabil—. Garai hartan Iparraldeko tradizioarekiko gutxieneko atxikimendu, zaletasun edo ezagutza bat izan balu, irizpide hori behintzat jarraitu beharko zukeen. Beraz, arrazoi linguistikoak alboratuta, Pomierrentzat *h*-ak euskal testu guztien tradizioaren aurka doan balio utilitariora zuela uste dugu: zenbait hitz markatzeko erabiltzen zuela, testu nagusian aurreko saioan ahaztutakoak ondorengo erredakzioak sartzeko.

Halaxe diote ediziozileek ere. Hitz bat baino gehiagoko lokuzioetan, adibidez, argi ikusten da irizpide linguistikorik ez dagoela; soilik lokuzioen edota hitzen hasieran jartzen zituela *h*-ak. Geure adibideetatik: 1186 *hardo-carrayatzallea* “vinatero”, 1726 *hacusatzaile* (*gezurrezcoa*) “malsin”, 1748 *hengañatzallea*



“marrullero”, 3021 *herriertaria* “rechinador”, 2972 *haguintaria* “prelado” eta 3062 “superior”, 1715 *haldameneratu* “ladearse”.

Horra Gómez-López eta Zulaikak ematen dituzten adibideak (2020: 34):

- 1727 *haguindu* “mandar”
- 1728 *hasco aguindu ta batere eman ez* “manda potros y da pocos” (Requejoren THLan bezala)
- 1729 *haguinduc echeric galcen ez du* “el que promete no empobreze”
- 1730 *haguindu-zalea* “mandón”

Edo:

- 1703 *hez batera eta ez bestera dagoana* “indife[re]nte”
- 1736 *hescua escuaren gañean egon* “estar mano sobre mano”
- 2994 *hatez ate ibilli* “andar puerta en puerta”

Hauxe da edizioz gileen azalpena (Gómez-López eta Zulaika, 2020: 33): zenbait teknika darabiltza Pomierrek folio batzuetan sartzen ez zaizkion letretako hitzak sartzeko. Adibidez, *A*-z edo *E*-z hasten diren hitz batzuk *H* letran sartzea, edo *B*-z hasten diren batzuk gero *V*-n sartzea. Halako oharrak dakartza hiztegiak letra batzuen amaieran: “*A. E, I, O, U letra obequin asitcen dira[n] itz asco arquituco dira G-ren urrena, H-requin*”. Ordena alfabetikoa jarraitzen du hiztegiak, noski, baina tartean, hiru lekutan sartzen ditu *H*-rekin hasitako zerrenda batzuk: *G* aurretik, *I* bokalaren tartean, eta *R* aurretik.

Zein hitz sartzen zituen hor, edo zein hitz markatzeko erabiltzen zuen *H*-a? Lagin batzuk aztertuz, aukera bat da pentsatzea adibide batzuetan behintzat Larramendi osatzen ari dela, eta osatu edo zuzendu nahi dituen horiei jartzen diela aurretik *H*-a. Larramendiren *agintari* “superior”, adibidez, Pomierrek 2972 *haguintaria* “prelado” eta 3062 *haguintaria* “superior” dakar. Eta “grande”-rentzat *galanta* ematen du, (*h*)*andi* aldaera ohikoagoa izanik. Larramendik ere badu *galanta*, baina ez hor, “hermoso, bello” esateko baino. “Grande” edo “grandeza”, ordea, beti *andi* eta *anditasun*-ekin itzultzen ditu. Horra baten eta bestearen sarrera batzuk:

- **L:** *ceiñ ere ceran andi ta luce*, “quan grande eres , y largo”, grandeza *anditasuna*  
Galanta, hermoso, bello. **P:** 1168 *handia* vehemente 1688 *handia* gallardo. 1365 *galanta* fornido 1194 *galanta* grande.

- L: *argaltasuna* “flaqueza”. P: 1683 *hargaltasuna* “fragilidad”.
- L: *salatzallea*, *acusatzallea* “acusador”. P: 1726 *hacusatzaile* (*gezurrezcoa*) “malsín”.

Azken kontu bat aipatzearen, esan liteke afrikatuak txukun samar darabiltzala Pomierrek, txukunegi Larramendiren aurretikoa izateko. Bokalar-tean eta hitz amaieran behintzat ondo bereizten ditu frikari eta afrikatuak. *-tzaile* atzizkidunak *-tz-z* emateaz gain, beste hainbat ere badakartza: 8 *arrautzari*, 98 *arotza*, 315 *beatz*, 1565 *izotz*, 2433 *necazaritza*, 3023 *herrecardaritza*, 3193 *servitzari echecoa*. Ozen ondoren, berriz: 28 *aunzari*, 36 *aranzari*, 134 *alza*, 248 *arzai-maquilla*, 380 *galcea*... Gisako batzuk dakartza, nahiz eta salbuespenak ere badituen, aditz izenetan gehienbat: 16 *arrantzari*, 323 *burruntzia*, 661 *ibiltcea*, 664 *artcen*, 694 *galtceco*, 775 *zabiltza*, 902 *eltcea*... *ts*-ekin ere antzera esan liteke: 24 *arratsari*, 65 *averatsa*, 132 *autsa*, 133 *auts*, 3317 *uts eguin*... Ozen ondoren: 1518 *iguelsoa*, 1841 *itzalsua*, 1848 *jaquinsua*, 2930 *erantsi*, 1147 *hirentsi*... Baita, editoreen arabera errata izan daitezkeen hauek ere: 971 *ensun*, 366 *batsuetan*, 2664 *oñatsa* (Gómez-López eta Zulaika, 2020: 60).

## **6 -ONDORIOAK**

Lan honi ekitean, helburu orokor bezain lauso bat genuen buruan (*cf.* 1.1 atala): literatur hizkuntzaren historia egiten laguntzea. Hau da, izenak sortzeko atzizkiek literatur hizkuntzaren garapenean izandako eragina aztertzea, jakinik nolabait lotuta behar zutela batak eta besteak. Batez ere literatur gipuzkera genuen gogoan, baina oro har, euskararen hitzberrigintzari begiratuta, bagenekien albora ezineko mugarria zela Larramendiren *HH*-ak ezarritakoa. Haren aurreko eta ondorengoak aztertzen hasi ginen, beraz (*cf.* 1.3); batik bat, Pomier hiztegiari buruz Gómez-Lópezek eta Zulaikak egindako lanari eta Ubillosen dotrinari helduta.

Sarasolak hitzberrien inguruan ateratako datuak (*cf.* 3.4) genituen ikuspegi historiko orokor bat izateko. Ubillos ezaguna zen hark datuak bildu zituen garaian; ez, ordea, Lubieta eta Pomier. Lehendik ezagun genuen bilakaera horretan bi testuok nola kokatzen ziren ikertu nahi genuen, eta uste dugu badutela garrantzia literatur gipuzkera gehiago ezagutu eta Larramendik ezarritako mugarriari buruz daukagun irudia frogan jartzeko, *HH*-aren aurreko eta ondorengo lanak ispilu hartuta.

Sarasolari esker dakigu, esaterako, *HH*-aren garaian jotzen dutela goia lehen agerraldiek, alde handiz, eta askoz hitzberri gutxiago dokumentatzen dela segidan, nabarmen hitz eratorri gehiago erabiltzen den arren. Larramenditarra zela bagenekien

aurrez, baina alde horretatik ere nabari zaio Ubillosi haren ondorengoa dela (*cf.* 2.4.). Hogeitik gora atzizki ezberdin identifikatu ditugu haren laginean, 72 sarrera ezberdin eman dituztenak. Bi hitz baino ez daude lehen lekukotasun gisa har daitezkeenak (*cf.* 3.1), gutxienez bitxia edo gerora gutxi erabilia horietako bat: *libertasun*. Hegoaldean lehen aldiz erabilitakoak ere ez dira asko, eta Leizarraga eta Axular ageri dira aurrekari gisa. Ubillosen kasuan baina, badakigu Axularren lanak behintzat ezagun izan zitzakeela.

Larramendiren eraginaz ari zela, haren erakusgarri, Ubillosen pasarte bat eman zuen Sarasolak (1992: 316), ondoren honakoa gehitzeko: “Ezin begitanduzkoa litzateke Larramendi baino lehen (...) Koerlazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzearen eta bertan gertatzen den hitz eratorri kopuruaren artean”. Horixe berretsi beharrean gaude geu ere.

Ubillosen kontrako adibidea genuke Lubieta (*cf.* 2.5). Dotrina bat da lehenengoa, eta euskara irakasteko eskuliburu bat bigarrena, baina bien artean nabari da alderik handiena eratorpenari begiratuz gero. Bien arteko kontrastean, argi ikusten da Larramendiren mugarrria. Gipuzkerazko hiztegitan pieza garrantzitsua da Lubietaren hiztegia ere. Pomier hiztegia aztertu ondoren, datuak osatzeko eta *HH*-aren aurreko egoeraz hobeto jabetzeko balio izan digu hura aztertzeak: nabarmena da aldea erabilitako atzizki kopuruan nola atzizki bakoitzetik eratorritako hitzetan.

Pomier hiztegian ageri diren atzizki asko erabili ere ez ditu egiten Lubietak. Zortzi bat atzizki baino ez darabiltza, eta horietako gehienak, pare bat aldiz gehienez. Larramendi aurretik Hegoaldeko testuetan erabili ez ziren atzizkiei begiratuta, adibidez, ohar gaitezke halakorik ez duela Lubietak: *-pen-ik* ez du, ezta *-era-rik* ere. Pomierrek eta Ubillosek, aldiz, badituzte; gehiago bigarrenak lehenengoak baino.

Pomier hiztegia non kokatu, horixe izan da lanean aurrera egin ahala sortu zaigun galdera eta ikergai nagusia. Larramendiren aurrekoa izateko hitz eratorri asko baditu ere, gutxi dira benetan lehen agerraldiak.

Geure hasierako azterketaren arabera, %27,5 (142etik 39) lirateke lehen lekukotasunak Pomierren hiztegiko hitz eratorrien artean (*cf.* 3.3). Aski hurbil legoke datu hori Sarasolak Larramendiren epealdirako emandako portzentajetik (%35,6), baina lanaren azken kapituluaz azaldu bezala (*cf.* 5), gauzak zeharo aldatzen dira Pomier *HH*-aren ondorengotzat joz gero. Izan ere, 39 lehen lekukotasunetatik, aurreko hurbilketan 28k zuten hurrengo agerraldia *HH*-n: beraz, gehien-gehienak hari zor izango lizkioke benetan. Gainerako 11 hitzetatik seitan, berriz, Añibarro ageri da (*cf.* 5.2). Berdin

gertatzen zaigu ustez Pomierrek Hegoaldean lehen aldiz erabilitakoekin ere: 56tik 46 Larramendiren bidez hartuak izan litezke. Pomierrek Iparraldeko tradizioarekiko lotura gutxi edo batere ez duela suposatuz —eta Larramendik bazuela jakinik, eta hertsihertsia gainera— gero, gainera, hura zubitizat hartuta baino ezin dira ulertu horiek guztiak. Gainerako 10 hitzetatik, Cardaberazek eta Mendiburuk dakartzate bi (*cf.* 3.3.2).

Zenbakitan baino xeheago ikertu behar lirateke horiek guztiak, hitzez hitz, bakoitza nondik nora sortua den eta zer bide egin duen aztertzeko, eta hala, Larramendiren eta Pomierrek arteko hartu-emanak nola izan diren hobeto fintzeko. Dena den, orain arte ikusi ahal izan dugu, hitzen lehen agerraldiak eta aurrekariak ez ezik, garrantzitsua dela ondoren zer bide egin duten ere kontuan hartzea. Horrek ahalbidetu digu, adibidez, Pomierren lehen lekukotasunetako gehienak Larramendik ere bazituela ikustea —baita zenbaitetan larramenditarren bat tarteko dela ere; haiek Ubillos, Cardaberaz eta Mendibururekin dute harremana ere ikertu behar litzateke—. Behin bigarren hipotesia lantzen hasita, berdin egin dugu Iparraldeko tradiziotik zetozen hitzekin ere.

Lan honek erakutsi digun gauzetako bat hori izan da, hain zuzen: datuak eta portzentajeak alde askotatik begira daitezkeela, baina halako lantegi handietan, hitz bakar batek ere alda dezakeela begirada eta —begirada aldatuta, lehen baino gehiago edo uste ez genuenik esaten digutela datu berberak—. Horixe gertatu zaigu *jatorri*-ri buruzko irakurri ondoren: Larramendi aurretik jarrita, hobeto irakurtzen dira Pomierren lehen lekukotasunak —geuk aztertutako atzizkietan, 11 baino ez lirateke—. Horietako sei Añibarrok ditu ondoren. Beste bost geratuko lirateke: 2223 *muquertasuna* “terquedad” [Ur *MarIl* 99] ; 2424 *nazcatasuna* “fastidio” [Ag Kr 49]; 2445 *narrugorritasuna* “desnudez” [AA III 375 l-]; 2035 *leunqueria* “lisonja” [fB *Olg* 65]; 926 *eunguillea* “tejedor, tejedora” [Erkiag *BatB* 184).

Orain badakigu, Lakarrari irakurrita, “Pomier (haren hiztegiaren bertsio ezagun bakarra) Larramendiren zordun garbia” dugula. Oraindik badago zer ikertu, ordea: “Zor horren nolakoa kantitatean eta kalitatean ikertzeke eta ikertzeko dago eta baita \*P eskuizkribuaren lehen bertsioa edo hiztegi-asmo horren lehen geruza 1745 aurretiko ala ondoko den eta are \*P eta Pren artean izan litezkeen moldaketa edo aldaketen kronologia ere” (Lakarra 2022: 41).

Beraz, hasierako helburu orokor hartatik —izenak sortzeko atzizkiek literatur hizkuntzen garapenean izandako eragina aztertzea—, baina hortik gehiegi urundu gabe pentsatuaz, lanak berak eraman gaitu aztergaia xehe eta begirada Pomier hiztegiaren eta Larramendiren arteko harremanean jartzera. Lan bakoitzeko datu hutsak ateratzen hasi ginen, hitz eratorrien zerrendak egin eta atzizkizka antolatzen. OEHren laguntzaz lehen agerraldiak, Hegoaldeko lehenak bereiztera jo genuen gero, eta datu horiek osatuz joan gara pixkanaka, horietan bilatu nahi genuena zehazteko: ondorengo agerraldiak, Iparraldeko zein lan izan zitzaketen eskura aztertutako autoreek, eta azken unean, espresuki Larramendik zein zituen ere begiratu behar izan dugu, haren eta Pomierren arteko loturak aztertzeko. Nahiz eta nahi bezain ondorio argirik atera ez eta bidea nahi baino gorabeheratsuago egin, uste dugu lana hasterakoan baino ikuspegi aberatsagoa, baita zehatz eta seguruagoa ere, dugula orain XVIII. mendeko eratorpen bidezko Gipuzkoako hitzberrigintzaz, dela horretan tipologia aski ezberdinak erakusten dituzten aztertutako lekukotasunei dagokienez, bai beren arteko erlazioez eta baita horien eta protagonista nagusi den Larramendirekiko alde, antz eta zorrez ere. Asko da oraindik bide honetan egiteko geratzen dena, bain nahi genuke lan honek ere lotura horietan eta eratorpenaren eta literatur hizkuntzen arteko harremanean argi pixka bat jarri izana.

**-BIBLIOGRAFIA:**

- Bilbao, Gidor, 2012, "Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian", in: Lakarra, Joseba A. *et al.* (arg.) *Koldo Mitxelena Katedaren II: Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz:UPV/EHU, 621-650.
- Bilbao, Gidor, Bueno Berridi, Ane. *Diccionario en castellano y basquense (1728)*. Lubieta hiztegiaren transkripzioa.
- Bueno Berridi, Ane, 2006, "Atzizkiak aztergai autore ezberdinen begiradapean". *ASJU XL*, 2006-1-2, 221-244.
- Euskaltzaindiaren arauak, 49: *ARI (-lari) atzizkiak*.  
<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak>.
- Euskara Institutua, EHU, "-tasun", "-keria", "-tzaile eta -le", "-ari", "-gile, -gin", Sareko Euskal Gramatika (SEG), [www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg).
- R. Gómez, 1997: "Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz", *ASJU XXXI-2*, 363-391.
- Gómez López, Ricardo, Zulaika Hernández, JM., 2020 *El vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español*. *ASJUren gehigarriak 72*, UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba. 1985. "Larramendiren Hiztegiaren Inguruan". *ASJU 19-1*, 1985, 9-50.
- Lakarra, Joseba., 1997: "Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri". *ASJU XXXI-2*, 1997, 447-535.
- Lubieta, Jose Domingo, 1728.
- Mitxelena, Luis., "A propósito del catecismo vasco de Ubillos", *FLV*, 54,1989, 149-160.
- Sarasola, Ibon, 1986. "Larramendiren Eraginaz Eta". *ASJU 20-1*, 203-15.
- Sarasola, Ibon, 1997, "Euskal hitz altxorraz". *ASJU XXXI*, 1997-1, 617-642.
- Tellechea-Idigoras, Jose Ignacio, 1966, "Nota autógrafa del P. Larramendi a la copia que hizo del Nuevo Testamento de Lizarraga. Advertencia», *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa 7*, Publicaciones de la Excm. Diputación de Guipúzcoa, Donostia, 175-176.
- Ubillos, Jose Antonio, 1785, *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena* (Faksimilea: Hordago, 1978)
- Urgell, Blanca, 2003: "Eratorpena Larramendiren hiztegiaren (I): Eratorbideen analisisa". *ASJU XXXVII-1*, 2003, 203-260.
- Urgell, Blanca, 2018: *Lehen Euskara Modernoa (1745-1891)*. Euskararen Historia, 2018, 543-657. Eusko Jaurlaritzak.
- Zulaika, Josu M., 2012: *Breve panorámica de la lexicografía vasca anterior al "Diccionario Trilingüe" de Larramendi (1745)*. *BSEHL 8*, 2012, 43-71.